txora arte, hilabeterik idorrenak erregistratzen dira, urteko batez besteko hezetasuna %64-tik da; ekainetik abuztura arte, mberriz, euriak etortzen dira: hilabetero 23 egun euritsuekin. Tobago, urakanen erdialdeko gerrikitik at dago.

Bere paisaiak kontraste handiak ditu.



Bere alde euritsuenetan, landaretza naturala baso tropikala da. Alde idorrenean, osterak, sabanak eta xerofilo arbolak agertzen dira.

Irla honetan arrazen eta kulturen nahasketak handiak sortzen dira. Populazioaren %40 indiarra eta pakistandarra da. Beltzak eta mestizoak %39'5 dira eta zuriak %18'5 dira. Hizkuntza ofiziala ingelesa da baina espainiarra, frantsesa eta indiarra ere hitz egiten da.

Bere biztanleen bizi-itxaropena 68 urtekoa da -gizonen kasuan-, eta 73 urtekoa emakumeengan.

Analfabetismoaren tasa oso txikia da, izan ere, %3-tik baino gutxiagoa da.

Aurkikuntza gertatu ondoren, nazio honen ekonomiak izugarriko aldaketa pairatu zuen. 60ko hamarkadaren amaieran, itsas zabaleko petrolio-hobia asko lortu zituzten. Horrela, meatze-baliabide nagusia petrolio da, Karibeko lehenengo ekoizlea da. Gas-natural-hobiak ere baditu.

Laborantzen artean aipa ditzakegu: azukre-kanabera, zitrikoak, kokoak, bananak eta tabakoa.

Turismo-betetzea urri

Tobagok bisitarien kopuru aproposa du, hoteleko azpiegitura orekatua egoteko.



TOBAGO

Irlako panoramikarik onena errepide lerronakurretako lau kilometotan datza, honek ekialdeko mendiak zeharkatzen ditu. Charlotteville -arrantzaileen herria- oso pintoreskoa da, hemengo badiak ferra-itxurakoa du (Man of War), bere hareak ilunak dira, bere oihaneko muinoak, bizitzaren arbolen laranja-kolorereko lorez estalita daude. Hamabost minutura oinez, piraten badia dago: "Pirate's Bay", duela mende batzuk, Tobagoko kostaldeetan bukanero asko babestu ziren. Hauek Hego Amerikatik etorzen ziren Espainiako itsasontziak eraso-



tzen dituzte baita Antilla Txikietatik bidaiatzen ziren Ingalaterrako kargaontziak ere.

Main Ridgeko euri-basoa

Tobagoko "bihotz berdea" Main Ridgeko euri-basoa dago, mendebaldeko



hemisferioko baso-erreserbarik zaharrena. 1765. urtetik Ingalaterrako kultibagileek 100 km² preserbatu zuten, erreserba hau lortuz. Makina bat bide bihotz berde honetan sartzen dira, 400 hegazti-espezie, 108 ugaztun-espezie, eta 50 narrasti-espezie baino gehiago ikusteko. Irlako hiriburu administratiboa -Scarborough- da. Hantxe gotorleku-kolonial bakarra dago -Fort King George- deituta. Tobagoko biztanleak oso adiskidetsuak dira, rona edatea eta lagunekin hitz egitea asko gustatzen

zaizkie. Hemen, lagunaren kopurua eta lagunatasuna landatzeko denbora oso garrantzitsua da, bizitza luzea eta zoriontsua eramateko.





KARIBEKO UHARTEAK

BARBADOS

Antilla Txikietako ekialdeko tontorrean Barbados uhartea sortzen da. Antilletako arkutik, irla ez bolkaniko bakarra da. 430km2 ditu, terrazaz, senaiaz eta badiaz beteta. Hemen, kokondo, kaobadi eta filaoen artean dauden arrantzaleen herrixkak ikustekoak dira.

Barbados irla karedun txikia da, 430km2 ditu eta ozeanotik ateratako mahai txikia ematen du. Antilletako arkuko irla bolkanikoetatik, banatuta dago erlatiboki. Itsaspeko errelebearen urgaineratutako aldea da, zeinek irlako arkuaren tolestura eragiten baitu. Bere ekialdeko kostaldeak 7 terraza

eder ditu: Altuena, 300m-koa da eta erdialdeko lur handiak inguratzen ditu. Haran idorrek terraza hauek moztzen dituzte, jeneralki ekialdetik mendebalderantz orientaturik daude. Euritegaraietan uholde-ibaiak hemendik ibiltzen dira. Bere kostalde hareatsuak eta ez malkartsuak, 15 hondartza eder ditu,



itsaso lasai batek inguratzen ditu eta ertze-tan izugarriko landaredia ikus dezakegu. Terrazak -50m-ko altuerako muino kardun batzuen bidez- iparralderantz eta hegoalderantz luzatzen dira. Itsas higadurak hantxe harpe asko zulatu zituen -Animal Flower Cave bezala (irlako iparralderantz)-. Nahiz eta hango lurzorua oso estua izan, landaretza lehorrari sostengua ematen diote, esate baterako agabeak.

Irlako hegoaldeak muino ederrak ditu (115m baino gutxiago) nahiko eskualde izurtua da, non iparraldetik hegoalderantz-Saint-Georgeren harana, Christchuren muinoak, eta Silver Sandsten lautada txikia jarraitzen baitute.

Irlako hego-ekialdean itsaslabarren marra bikoitza dago (3 km inguru). Senaien eta badien artean, arrantzaleen herrixkak hedaturik daude, kokondo, kaobondo eta

filaondoen artean nahasturik.

Hondartzetatik gertu, turismoko gune handiak agertzen dira eta itsas zabalean South Point eta Kitridge Pointen artean, koralezko arrezife batzuk daude -Coblers Reef bezala- kostaldetarako sarrera ostopatu.

Higidurak lur hauek zizeltzen ditu

Barbadosko erdi-erditik hedatzen duen altuera erregularreko lautadak, ilargierdi-itxura du. Irlako mendirik altuena Hillaby mendia da (340m), gero badaude beste batzuk, esate baterako: Castle Grant mendia (338m) eta Misery mendia (325m), horrek bere isurialdi malkartsuarekin kostaldea menperatzen du, baita Scotland District ere.

Erdialdeko eskualde honetan, koralezko



BARBADOS

arroka karedunak, zeinek lurralderik zaharrena estaltzen duen-auri azidoaren eraso jaso du, prozesu horri erosio karstikoa esaten diote, eta dolinek (sakone zirkularra), herpeek eta haitzuloek hanpatzen dute.

Misery mendiko hego-ekialderantz, Harrison's Cave (nazioko harperik garrantzitsuen) agertzen da, baina ez dago irekita publiko-entzat.

Hackletongo itsaslabarren oinaldera, Scotland District izugarriko panoramikak eskaintzen ditu. Alde hori irlako alderik liluragarria da, gaur egungo errepide bihurtuak lenen mando-



en bidexka izan ziren, baina beste paisaia batzuk dauzka bisitariari harritzeko: bere haran sakonak, bere trokarte berdeak, bere muino arbolatsuak, bere itsasertzeko dunak...

Ozeano Atlantikoak, eguzkitan distira egiten duena, bere urak itsaslabar batzuetara irrist egiten ditu, eta ikuste-koak diren satai ederreko hondartzak, harri handiz beteta agertzen dira. Andromeda, udaldirako lekua da. Han landare edergarri mota asko eta hegazti-espezie anitz ikus daitezke.

Irlaren eraketa

Antilla Txikiko beste irlek bolkanismoa jasaten duten bitartean, izan ere, magmaren igoerak egoera hau eragiten du, zurrupatze-aldetik urrunago gertatzea-gatik. Plaka ozeanikoa Karibearen azpian hondoratu baino lehen, Barbados plaka horren gainean jarri zen eta hau dela kausa ez du jasaten bolkanis-morik.

80ko hamarkadara arte, zientifikoek ez zuten bere eraketa bitxia azaltzea lortu. Tontoretik oinarriraino, Tertiarioko lau maila daude. Lehengo maila 1'5 milioi urteko arroka karadunez eraginda



dago. Arroka honek irla gehiena estaltzen du (60cm-ko lodiera). Bigarren maila marga-sailaz eta arku bolkanikoaren eraispenetik atera ziren arroka-eginda dago (duela 1'5-12 milioi urte). Hirugarren maila sedimentu karedunez eginda dago (duela 25 milioi urte), eta bukatzeko, laugarren maila "base konplexu" delakoaz eratuta dago (25-65 milioi urteko antzinatasuna), arroka kontinental eta ozeanikoaren arteko nahasketa da (50 milioi urteko antzinatasuna).

Intentsitate aldakorra duten mugimendu tektonikoek, lurzoru guztiei min eman zieten eta tolesturak eta failak egin zituzten. Scotland Districtei Barbadosen benetako memoria genetikotzat har diezaiokogu, izan ere, koralezko-arrezifearen erosioak, hausturek eta estalperik gabeko arroka bigunek oso paisaia bereziak sortu dituzte.





KARIBEKO UHARTEAK

GRANADAKO UHARTEA

HAIZEALDEKO UHARTEAK:

Karibe itsasoko irla eta herrialde da Ganada, hemen Hegoaldeko Ganadarrak ere sartzen dira. Hemisferio mendebalдарreko bigarren herrialderik txikiena da (San Kristobal eta Nievesen ostean). Karibe itsasoko hego-ekialdean dago, Trinidad eta Tobagoko iparraldera, Venezuelako ipar-ekialdera eta San Bizenteko hegoaldera.

Granada deitzen den uharte herriatik handiena da. Granadar txikiak dira: Carriacou, Martinika Txikia, Rondeko irla, Caille Island, Diamante irla, Large Island eta Frigate Island. Populazio gehiena Granadan beran bizi da, hiri handien artean Saint George's (hiriburua), Grenville eta Gouyane dauzkagu. Beste uharte-



etako finkatzerik handiena Hillsborough da (Carriacou irlan).

Saints George's (hiriburua), 7500 biztanle inguru bizi dira.

1974ko otsailaren 7an, Granada irlak Erresuma Batutik independentzia hartu zuen. Irla horrek 344km² eta 90.000 biztanle inguru ditu; haietatik gehienak europarrek ekarri zituzten esklaboetatik ondorengoak dira (%80), Arawak eta Karibeko indigena gutxi daude.



Hizkuntza ofiziala ingelesa da eta ia populazio osoak hitz egiten du, baina batzuek, oraindik, patois frantziarra hitz egiten dute. Ia granadiar guztiak kristauak dira, haietatik ia erdia katolikoak dira. Erljio protestante nagusia anglikanismoa da.

Hemen eragina frantziarra txikiagoa da beste uharteekin konparatu ondoren, izan ere, hemengo kulturari Afrikako kultura oso sartuta dago.

Jatorri bolkanikoa eta klima tropikala

Irla hauen jatorria bolkanikoa da, barrualdea pixka mendikatsua da, ibai txiki batzuekin. Klima tropikala da: berotsua eta hezea. Urakanek noizean behin astintzen dute.

Granadako aurrerapen ekonomikoa,



erreforma fiskalagatik eta makroekonomia zuzeragatik, urtebako hazkundera izugarri altxatu da. Eraikuntzak eta komertzioak ekintza ekonomikoaren gehipena lortu dute, modu horretaz, turismo-instalazioak gehitzen dira, izan ere, turismoa kanpotarreko kapital-iturri nagusia da.

Gobernuari gehiago kezkatzen zaizkion arazoak, hauexek dira: zerga-defizita, eta kanpoko balantzaren hondatzea.



GRANADAKO UHARTEA

OECSeko beste zazpi kideekin Granadak Banku zentrala eta dibisa komuna tartekatzen ditu. Irla horri "espezien irla" esaten diote, baina beste produktu batzuk ere ditu, esate baterako, intxaur muskatua, mazisa, iltza, jengibre eta kanela. Seilu-jaulkipena, diru-sarrera iturritzat ere har ditzakete, filatelia- bildumazaletasuna lortzeko. Moneta ofiziala Karibeko ekialdeko dolarra da.

Granadaren historia

Granadaren historia erregistratua 1498.urtean hasten da, Kolonek lehe-



nengo aldiz irla ikusi zuenean. Ingelesek irla nahi izan baina huts egin zuten. 1650.urtean frantziarrek Karibeko indiarrei irla erosi zieten. 1877.urtean, Breitalia Handiari irla berriro pasatu zioten. Orduan irla, kolonia izatera pasatu zen eta Britainia Handiaren menpean geratu zen. Gero, 1974.urtean independentzia lortuko zuen. 1979.urtean, ezegonkortasun politikoren denboraldiaren ostean, Maurice Bishop ezkerreko liderak poterea hartu zuen. Bishopen sozialismoa eta komunistarekiko kooperazioa ez zitaien aldeko herriburu kontserbazionistek gustatu, esate baterako Barbados, Dominika, eta AEB. Etabaida batek alde komunistarekin -Bernard Coardi leiala- estatu-kolpera eraman zuen eta 1983ko urriaren 19an., Bishop-



a sortu zen.

Sei egun geroago, AEBetako militarrek eta Karibeko beste sei nazioek irla inbaditu zuten, horretarako kanpaina militarra bat sortu zuten -Premiazko Indarkeria Operazioa-. Militarrek oso askarki iraultzaren liderrak harrapatu zituzten baita kontseilari kubatarrak ere, Haietariko batzuek aireportu handiaren eraiketan lan egiten zuten. Urte batzuk geroago AEBek aireportuaren lanekin amaituko zuen. Dena den, askok esaten dute AEBetaren inbazioak merkataritza-helburua zuela, hau da, Grandan proiektatutako aireportua Miamiako aireportuarekin lehiaketa egingo zuelako (bai turismoan bai bidaiarietan), eta horregatik bere hondamena prestatu zuten. Hurrengo urtean, hautoeskundeak ospatu ziren. AEBen kezka taktikoen artean, St. George's-en Unibertsitateko matrikulatutako ikasle estatubatuarrek bizirik

ateratzea zegoen.

2004ko irailan, Iván urakanak uhartea astindu zuen. Urakana -hirugarren mailakoa-, etheen %90 apurtu zuen.

Gobernuaren sistema

Commonwealthkoa zenez, monarkia britainiarra, formalki, Estatuburua da. Gobernador Nagusi bat ordezkatzeko du, baina benetako botere exekutiboa gobernuaren liderrak du -Lehen Ministroak-. Nahiz eta Gobernadore Nagusiak Lehen Ministroari izendatu, parlamentuan errepresentaziorik handiena duena izan ohi da. Parlamentuak, Senatua (13 kideekin) eta Ordezkatzaileen Ganbara bat (15 kideekin) eratzen ditu. Gobernuak eta oposizioak senatari izendatzen dituzte, eta bost urtean behin, herriak bere ordezkariak aukeratzen ditu.





SAN BIZENTE ETA GRANADARRAK

San Bizente eta Granadarrak, Karibe itsasoko Antilla Txikietan dagoen irlako herria da. Bere lurraldeak 389km² ditu. Irla nagusia San Bizente da, (344km²) eta iparraldeko Granadarretako bi herenak (45km²). Hauek irla txiki-katea da, zein San Bizentetik Granadaraino hedatzen baita. Herriak historia kolonial britaniarra du eta orain CARICOMekoa eta Nazioetako Mankomunitate Britainiarrekoa da.

Santa Luzia eta Granadaren artean daude (Antilla Txikietako Haizealdeko uharteetan), Karibe itsasoko uharteko arku bat.

San Bizenteko ekonomia oso zuhurra da eta bere diru-sarrera iturri nagusia

banana-esportazioan eta nekazaritza-produktu batzuetan datza baita seilujaulkipenean ere (bildumazaletasun filatelikoarentzat).

Nahiz eta turismoa azken urteotan pixkanaka-pixkanaka gehitu, gobernuak



ezin du bere dibisa-iturria dibertsifikatu. 2003.urtean, uharteetako populazioa 116.812 pertsona ingurukoa zen, haietatik %66 beltzak ziren, %75ek kristautasun protestantea ziharduten. Gastatzen zituzten produktuen alde handi bat beren merkataritza-bazkideetatik inportatu behar izan da.

Bere moneta Ekialdeko Karibeko dolarra da.

San Bizentek eta Granadarrek 2007an 118.149 biztanle zituzten, haietatik %66 beltzak dira, %19 mestizo eta geratzen den %15 zuriak eta asiarrak dira. Hizkuntza ofiziala ingelesa da eta bizi-itxaropena 74 urtetan dago. Batezbesteko seme-alabak 1,81koa da. Irla bere populazio guztia alfabetatua dago-%96-

Uharten historia

XVIII.mendera arte Karibeko indiarrek Europako kolonizazioa galarazi zuten. Barbadoetatik, Santa Luziatik eta Granadatik ihes egindako esklaboak San Bizenten edo Hairouna-n (Indiarrek horrela esaten zioten irlari) babesa bilatu zuten, bertako jendeartekin nahastuz. Gero bere ondorengo mestizoari "garifuna" esango zioten.

1719.urtean, Frantziako kolonoek kafea, tabakoa, anila, kotioa eta azukre-kanabera landatu zituzten (Afrikako esklaboen bidez).

1763.urtean, San Bizente Breitalia Handira pasatu zen. 1779.urtean, frantziarrek poterea berriz ezarri zuten baina



SAN BIZENTE ETA GRANADARRAK

1783.urtean, Parisko Itunaren menpean britaniarrek San Bizente berreskuratu zuten, Breitaina Handiak itun honetan, ofizialki, iraultza estatubatuarren amaiera aitortu zuen. Frantzia eta Espainiarekin ere itun osagarriak signatu zituzten (1783ko Versaillesko Ituna), haietariko batzuek Breitania Handiari berriro San Bizenteko kontrola eman zioten. Britaniarren eta Karibe beltzen gatazkak 1796.urtera arte jarraitu zuen, orduan, Sir Ralph Abercromby jeneralak Victor Hugues erradikal frantziarraren matxinada zapaldu zuen. 5000 Karibe beltza baino gehiago Roatán uhartera deportatuak izan ziren (Honduras aurrean dagoen uhartea). 1834.urtean esklabotasuna ezeuztatu zen. Ikaskuntza-garaia pasatu ondoren, zein garaia baina lehenago amaitu baitzen 1838an, landatzeetan zego-



en lanarik eza, morroien kontratazioan amaitu zen. 1840.urteetik, portugaldarrak etorri ziren Madeiratik, eta 1861 eta 1880 bitartean, Asiako langile indiar asko etorri ziren. Lanaren baldintzak oso gogorrak izan ziren denentzat, izan ere, azukrearen mundu-prezio baxuek ekonomia gelditua mantendu zuten mendearen aldaketa arte. 1763tik independentzia arte, San

Bizentek, potere britaniarraren menpean, kolonia-egoeraren fase batzuk pasatu zituen. 1776.urtean, Ordezkarri den Biltzarra baimendua izan zen, 1877.urtean, Erregetzaren Koloniako Gobernua finkatua izan zen. 1925.urtean, Legegintza Batzordea sortua



izan zen eta 1951.urtean, Sugragio unibertsal heldua sortua izan zen.

Garai horretan, britaniarrek ahalegin batzuk egin zituzten San Bizente Haizealdeko uharteetako beste irla batzuekin afiliatzeko, modu horretaz administrazio batu baten bidez eskualde osoa gobernatuko zuten, baina alferrik izan zen.

Koloniek beraiek, ez zuten gobernu britaniarra nahi, eta batasuna-ahalegina egin zuten, Mendebaldeko Indietako Federazioa sortuz, baina 1962.urtean federazio hori desagertu zen. 1969ko urriaren 27an., San Bizenteri Elakarte lagunaren egoera eman zion, bere barne-arazoekin kontrol osoa emanaz. 1979.urtean, referenduma ospatu ondoren (Milton Catoa-



ren menpean), San Bizentek eta Granadarrak independentzia lortu zuten (1979ko urriaren 27an.).

Hondamendi naturalak

Herri honen historian hondamendi naturalak protagonistak izan dira askotan. 1902.urtean, La Soufrière sumendia



SAN BIZENTE ETA GRANADARRAK

erupzioan sartu zen, eta 2000 pertsona hil zituen eta Ekonomiak kalte handiak pairatu zuen. 1979.an, berriro erupzioan sartu zen eta nahia eta hilak egon ez, jende askok ebakuatu behar izan zituzten eta nekazaitzak kalte handiak jasan zituen. 1980-1987 bitartean, urakan batzuek banana- eta koko-sail asko hondatu zituzten. 1998-1999 bitartean, oso urakana aktiboak egon ziren, adibidez, Lenny urakanak irlako mendebaldeko kostaldean kalte handiak egin zituen (1999an).

Demokrazia parlamentarioa

San Bizente eta Granadarrak, Nazioetako Mankomunitate Britaniarraren barruan, demokrazia parlamentaria da.



Isabel II. Estaturburua da eta Gobernadore Nagusiak irlan ordezkutzen du (Karguaren alde gehiena funtzio zeremoniotsuetan datza). Lehen Ministroak eta Gabinetek gobernoaren kontrola dute. Opozizio Parlamentaria dago, gutxiengoko handiagotik eratua, opozizioaren buruak agintzen du. Herriak ez dute indar armaturik, baina San Bizenteko eta Granadarretako Polizia-Indarrek Zerbitzu-Berezi Unitatea dute.

San Bizente eta Granadarrak, OECSe-ko eta CARICOMEko kideak dira. Administratiboki, San Bizente eta Granadarrak sei parrokiatan zatitzen dira: Carlota, San Andrés, San David; San Jorge, San Patricio eta Granadarrak.



KARIBEKO UHARTEAK

SANTA LUZIA UHARTEAK

San Bizenteko eta Granadarretako iparraldera, eta Martinikako hegoaldera herri txikia da Santa Luzia. Karibe itsasoan dago. Irla bolkaniko horrek 616km² eta kostaldeko 158 km ditu. Bere tontorrik altuena Gimie mendia da (itsas mailatik 950m-ra), baina bere mendirik ospetsuenak Pitons mendiak dira, beren siluetek eskualdea irudikatzen dute eta bere banderaren goiargitzat hartu ziren.

Hiririk handiena hiriburua da -Castries-, hemen irlako heren bat baino gehiago bizi da (162.000 biztanle inguru). Beste hiri garrantzitsu batzuk dira: Soufriere, non Qualibou sumendiaren emanazio sulfretsu batzuk eta iturburuak baitaude, eta Vieux Fort, non nazioarte-

ko aireportu baitago.

Santa Luziako populazio gehiena beltza da -%90-, gutxiengo mistoarekin, %1 bakarrik zuriak dira. Populazioaren %90 katolikoak dira eta ia %33k ez daki idazten edo irakurtzen. Batezbesteko adina 24 urtekoa da eta bizi-itzaropena 73 urtekoa.



SANTA LUZIA UHARTEAK



Bere hizkuntza ingelesa da eta bere moneta Karibeko ekialdeko dolarra.

Euriteak maitatza eta abuztuaren artean gertatzen dira

Klima tropikala da. Euriteak maitatzen hasten dira eta abuztuaren bukatzen dira. Nahiz eta irlako iparraldera defores-

tzaio- eta higadura-arazoak egon, arazo nagusia urakanak izan ohi dira. Hauek urtero Karibe itsasoa astintzen dute.

1979ko otsailaren 22an, Santa Luziak Erresuma Batetik independentzia lortu zuen eta gaur egun Karibeko Erkidegoaren kidea da baita Commonwealth-koa, CARICOMeko, NBEko, OECS-koa, OEAko eta AEC-ko ere.

Bere ekonomia turismoan eta industrian datza

Santa Luziako ekonomia beti bananaren menpean egon da. Dena den, Europako Batasunaren inportazioari buruzko aldaketek, eta Amerika latindarreko ekoizleen leia bere diru-sartze iturria dibertsifikatzera eramanez dute. Horrela



bere BPGan turismoa eta nazioarteko finantzak oso garrantzitsuak dira eta orain zerbitzu-sektoreak BPG-tik ia %73 lortzen du. Bere enpresak oso dibertsifikatu-

rik daude Karibeko ekialdean. Irlako esportazio-tako produkturik nagusiak banan eta ehun-produktuak dira. Normalean produktu hauek AEBetara eta Erresuma Batara esportatu zituen. (30 milioi dolar).

Afrikako eragina duen kultura

Santa Luziaren kultura Afrikako eragin handiak ditu, immigrazioagatik eta antzinako esklabo-merkataritzagatik. Nahiz eta hizkuntza ofiziala ingelesa izan, Kweyolera eta frantsesetik datozen kreolera hizkuntza batzuk hitz egiten dira. Egia esan, oso normala da infor-



SANTA LUZIA UHARTEAK

mazio-tarteak eta elkarrizketa politikoa kreoleraz entzutea. (Dominikan ere kreolera hitz egiten da).

Bederatzi irri-erretxea daude, haietatik seik maiztasun-modulazioan transmititzen dute eta hiruk zabaltasun-modulazioan. Hiru telebista-kanal ditu eta haie-tatik bat komunitatearena da.

Nahiz eta herria gaztea izan eta gabe-tasun asko eduki, biztanle batzuk arte-edo letra-arloan nabaritu dira, adibidez, Derek Walcott -1992ko Literatura Nobel Saria eta 1979ko Ekonomia Nobel Saria.

Aurrekari historikoak

Santa Luziako lehengo populatzaile indigenak Hego Amerikatik ailegatu

ziren, III.mendean baina denboraren poderioz Karibe herriak hartu zituen. Castries zegoen portuaren garrantziagatik, XVI-XVII.mendearen artean Erresuma Batua eta frantziarrak beti iskanbiletan zeuden irla honekin geratzeko. Gutxienez hamalau aldiz eskuz aldatu zen. 1814.urtean behin betirako geratu zuen Erresuma Batuak. 1967.urtean, Koroa britainiarrak auto-nomia handiagoa eman zion bere barru-arazoak administratzeko eta 1979ko otsailaren 22an independentzia eman zion.

Santa Luzia herri independentea da baina Erresuma Batuko monarka mantentzen du subiranotzat eta estatuburu-tzat. Berak Gobernadore Nagusia dei-tzen du, monarkaren eginkizunak egite-



ko (sinbolikoak besterik ez dira). Gobernuaren nagusia Lehen Ministroa izan ohi da, legegintza-hautoeskundeetan boto gehiago dituen alderdiaren lehendakaria da. Parlamentua bi ganberakoa da: Beheko ganberan 17 kide aukeratu daude bost urterako eta Senatuak, 11 kideekin. Gobernadore Nagusiak aukeratu ditu. Ekialdeko Karibeko Korte Gorenak botera judiziala zuzentzen du, baina bere jurisdizioa Santa Luziatik urrunago joaten da: Anguila, Antigua, Barbuda, Britainiako Birjina uharteak, Domini-

ka, Granada, Montserrat, San Kristobal, Nieves, San Bizente, eta Granadarrak.





KARIBEKO UHARTEAK

DOMINIKA

Karibearen erdi-erdian, Guadaluperen eta Martinikaren uharteetan artean dago Dominika. Berde-koloreko esmeralda bezala, itsasotik ateratzen da. Antilla Txikietatik irla ederrenetarikoa da. 789 km² banana- eta koko-sailez beteta daude.

1942ko azaroaren 3a aurkitu zuen Kristobal Kolonek. Igandean aurkitu zuenez edo beste modu batez esanda: domekan, handik dator bere izena -Dominika-.

Karibeko irlarik mendikatsuena da. Bere mendietan euri asko egiten du -urtero 7500mm inguru-. Ur horrek aparteko ur-jauziak eragiten ditu, 365 ibai eratuz.



Arrezife estuak, landare trinkoz estalirik, itsasoan sartzen dira. Bere hedapenaren alde gehiena (789 m²), arrezife- eta ton-tor-bilduma da, 1500m-ko altueraraino ailegatuz.

Duela urte asko, Kolonek irla hau aurkitu baino lehen, Hegoamerikako iparreldetik migratu zuen gerlari basati-talde bat, irla honetan finkaturik zegoen. Haiek Ara-wenkiko etengabeko erasoak egiten zituzten. Azkenean herri berri horrek Antilla Txikietan bizi ziren herri guztiak menderatu zituen. Espainiarrek karibeak edo kanibalak deitu zituzten.

Kanibal hauek harrapatutako pertsonak jaten zituzten eta hildakoen gorputz-atalak gerraren garaikurak bezala erakusten zituzten. Horrek beldurtzen zituen europarrak, eta bi mende igaro behar izan ziren, irla leku segurutzat hartzeko eta gero han finkatzeko.

Garai horretan, iparraldean gaixotasunek bortxazko lanek eta natiboak hiltzen zituzten bitartean, karibeak aurrera joa-

ten ziren.

1686.urtean frantziarrek eta ingelesen ezin zieten gerlari basati horiei aurre eman, eta espainiarrak ez zeudenez, eskualde hori ez zitzaielako interesatzen, hitzarmen batean erabaki zuten Dominika alde neutrala izango zela. Baina hurrengo urtetan, frantziarrek irlako laz-tasunak eta aborigen porrokatuen basatasuna gainditu zituzten eta irlan kokalekuak ezarri zituzten. Horrek ingelesen borroka eragin zituen irlaren edukitzeagatik (1700.urteko azken aldia) eta XIX.mendearen hasieran, ingelesen irla menperatu zuten. Garai horretan, irla askotan negoziaketan egon zen: 1963.urtean, Parisko Itunak burujabetza britainiarra onartu zuen, baina geroago Frantziak berreskuratu zuen, baina 1783. urtean berriro ingelesa izan zen (Versallesko Itunarekin).

Gaur egun ere, ohitura frantziarrak, hizkuntza eta erlijio katolikoa irlako alde guztietan ikus daitezke. Mende horietan



DOMINIKA

zehar, nahiz eta karibeak irlako hondatutako alde batera joatera behartuta izan, beren eragina irlaren garapenean oso garrantzitsua izan zen.

Hemen ez zen gertatu ondoko irletan bezala, hemen azukresailak beranduago garatu ziren, hau dela kausa esklaboen portzentaia ez zen hain handia beste irla batzuetan gertatzen zen bezala. Esklaboek beren askatasuna lortu zutenean, lur txikiak landatze-

ari ekin zioten, eta nekazari burujabe bihurtzen dira, baserriko gizarte burujabea lortuz -honek gaur egungo Dominika bereizten du-.

Garraio-garapenak gauza bat ekarri zieten indigenei -"berde-koloreko urrea"- edo banana. 50eko hamarka-



dan zehar, irlako ekoizpenarik garrantzitsu bihurtu zen, populazioaren erdia baino gehiagok banana-sailetan lan egiteari ekin zion.

Egun, esportazioen %80 bananak dira eta Erresuma Batura bidaltzen dira. Nahiz eta ekoizpenaren erdian etxalde



handietan lortu, ekoizle txiek ere bananekin dirua lortzen dute.

Biztanle-dentsitate txikia

Karibeko irlatik, Dominikak biztanle-dentsitate txikiena du, baina estatistikek

ez dute egia esaten. Bere biztanleen %80 kostaldeko marra estuan bizi dira, eta ez alde menditsuetan edo oihanetan. Azken urteotan jende asko hirira joan da eta gaur egun populazioaren laurden bat baino gehiago hiriburuan -Roseau- bizi da.



DOMINIKA

Gobernua konturatzen da irlako abe-rastasuna bananan datzala, eta horregatik beste produktu batzuk ere esportatu nahi ditu: kokoaren deribatua edo zitrikoak, baita turismoa areagotu nahi du ere, ekonomia dibertsifikatzeko.

Karibeen erreserba

Gaur egun ere, Dominikaren lehenaldiaren legatua irlako alde askotan dago. Ipar-ekialdeko kostaldean 1500 hektarea utzi zituzten karibeen erreserba finkatzeko. Mende horietan zehar, nahiz eta europarrek karibeak irlako hondatu-



tako alde batera joatera behartu egin, beren eragina irlaren garapenean oso garrantzitsua izan zen.


Gaur egun leku honetan karibeen ondorengo zuzenetik biltzen dira.

Nahiz eta indiako hizkuntza galdu eta bere odola populazio beltzaren odolarekin nahastu, erreserbako karibe askotako bizimodua aldaketarik gabe mantendu da. Etxoletatik keak ateratzen jarraitzen du, gizonek, beren alde-tik, enbor handiekin lan egiten dituzte kanoak egiteko (mila urte baino gehiago du ohitura horrek).

Dominikarrek, ausardi handiz, beren autogobernuaren alde borroka egin zuten eta 60ko hamarkadaren hasieran, ondoko irlekin konfederazioa egitea ezin zutenean lortu, Dominikak bakarrik aurrera joatea erabaki zuen.



1967. urtean irla gobernuaren estatu burujabea zen, estatu britainiarrarekin elkartuta. Ematen zuen kanpo-politika eta defentsa bakkarik elkartuta zegoela baina bere menpekotasuna zakonagoa zen. Eta horregatik, Kristobal Kolonek 1942ko azaroaren 3a aurkitu zuenean, irlak bere nazio burujabearen maila eskatu zuen. Denek bazekiten bide batean etapa berri bat besterik ez zela eta oraingoz bere amaiera ez zela ailegatu.





KARIBEKO UHARTEAK

MARTINIKA

Irla mendikatsua da; bere jatorria bolkanikoa da. Itsasoz bestealde frantziarren saila da, zein Santa Luziako iparraldera baitago, Karibe itsasoko uretan, Antilla Txikietako Haizealdeko irla-taldekua da.



Monte Pelée-sumendiak irla hau menperatzen du (1397m-ko altuera). 1902ko maiatzaren 8a erupzioan sartu zen, eta Martinikaren kataklismoa eragin zuen, Europako lehenengo finkapena hondatuz (Saint Pierre) eta 30.000 pertsona baino gehiago hil eginenez. Pixkanaka-pixkanaka populazioa berreskuratzen ari doa eta gaur egun eskualdeko irla populatuena da.



Bere hiriburua Fort-de-France da, 100.080 biztanle ditu. Hiririk populatuena da, baita irlako porturik nagusia ere. Hiri honek estilo frantziarra du Karibearen, eta Frantziako kultura, moda, artea eta ohiturak erakusten ditu.

Populazio beltza eta mulatoa

Populazioaren %90 beltza edo mulatoa da eta %10 zuria. Geniena -%85- katolikoak dira. Beste hiri garrantzitsuz batzuk dira: Le Lamentin (30.028 biztanle) eta Sainte Marie (19.682 biztanle). Hango NPGa (Nazio-Produktu Gordina) Frantzia metropolita-

rraren NPGaren erdia da. Horregatik, Europako Batasunak ematen dituen egitura-funtsa guztietatik onura lortzen du irla horrek. Izan ere, erdeinatutako alde ekonomikotzat hartuta dago. Karibeiko uharte guztiek bezala, lehenengo mailako alde turistikoa da. Horrek turistari zuri-koloreko hareazko hondartzak, ur gardenetako senaiak, ur termalak, lurralde mendikatsuak, haitzarteak



MARTINIKA

eta oihanak eskaintzen dizkio, batera lore ederrak ikusteko aukera, esate baterako, liliak, orkideak..., fruita tropikalak jateko aukera, adibidez, kokoak, ananak edo papaiak. Eta hori guztia klima bero eta liluragarri batekin, urte osoan zehar.

Beti Frantziaren menpean

1502ko ekainaren 15a. Kristobal Kolonek Martini-ka aurkitu zuen, baina espainiarrek ez zuten kolonizatu. Hiru aldiz izan ezik, 1635.urtetik, irla beti Frantziaren menpean egon da XVII.mendearen lehenengo erdialdian, Amerikako uharteetako konpainiaren frantziarrak hantxe finkatu



ziren, gero Britainia Handiak hartu zuen, eta 1674.urtean Frantziako gobernuak irla erosi zuen.

Bitxikeria bezala esan daiteke, Marie Joséphe Rose Tascher de la Pagerie (1763-1814), Beauharnaisen Josefina

bezala ezaguna, Napoleon I.a Bonaparte eskondu zena, Martinikan jaio zela.

Napoleonek bere lehenengo emazteari - enperatriz frantziarrari-, uko egin zion, Berak bere buruari enperadore izendatu zionean.





KARIBEKO UHARTEAK

GUADALUPE

Karibe itsatsoan dagoen Antilletako artxipelago txikia da Guadalupe. Gaur egun itsasoz bestaldeko departamentu frantziarra da.

Hego Amerikako kostaldeetatik iparraldeko 600 km-ra finkatuta dago, eta Dominikar Errepublikako hego-ekialdera. Antzinean, bere izena Karukera zen, horrek “ur ederrak dituen irla” esan nahi du.

Artxipelago eratzen duten irlak dira: Guadalupe, zeinek bi uharte desberdin baitauka, mangladizko kanal batetik banaturik -La Rivière Salée- edo “*Errekasto gazitua*” eta haien artean loturik bi zubien bidez. Irla hauek Basse-Terre (848 km²) eta Grande-

Terre (588 km²) dira. Lehenengoaren jatorria bolkanikoa da, eta handiena eta mendikatsuena da, bigarrenak substratu kareduna du eta kostalde basati eta arrokatuen lautada idor horzdun batez eraginda dago. Bere hegoaldeko kostaldean, turismo-gune



gehienak harea zurizko hondartzaz eta koralezko arrezifetz beteta. Alde horri Errekastoa esaten zaio.

Bi irla hauek loturik pinpilipausa-itxura dute eta nahiz eta bere silueta nahiko uniforme izan, bere topografia zeharo desberdina da.

Ekialdeko lurraldean, Grande-Terre uharteak goragune txikiak eta lautadak ditu: hemen azukre-kanabera landatzen dute. Mendebaldeko alde, Basse-Terre uhartean, mendi malkartsuak eta oihan tropikalak zuhaitz handiz eta aparteko iratzez beteta ikus daitezke. Basse-Terreko alde handi batean -barrualdean- Parke Nazionala dago; hemen Ekialdeko Karibeko ur-jauzirik altuenak daude eta Guadalupeko tontorrik altuena, La Soufrière (1470m) sumendi aktiboa.

Artxipelagoko beste uharteak dira: La Désirade, zeinek bitarteko erreliebea baitu, 270m-ko altuerako mendiekin; Marie-Galante, zapala-itxuraz hedatzen dela, Les Saintes, zeinek bederatzi irla-

txo dituen (haietatik bi bizi izandak dira), eta Petite Terre.

Lurralde horrek landaretza asko ditu, mangladietatik oihan tropikal mendikatsuetara. Basse-Terre uhartean, zuhaitz tropikal kaduzifolio asko daude: Tabonuko handiak eta gaztainondo zurkaiztu handiak, iratze-basoak helikoniaz eta jengibrez pikardaturik.

Guadalupe animalia-espezia asko daude, haien artean, lertxunak, pelikanoak, kolibriak, eta Guadalupeko txepetzak -agortzeko arriskuan dagoela-. Bananakit txikia aurki daiteke, txori txiki horrek hori distiratsu-koloreko sabela du eta nektarraz elikatuz, eta estalperik gabeko jantokietako zukre-ontziak zurgatuz. Guadalupe mangosta asko daude, antzinean ekarritak, zukre-kanabera zoroetatik arratoiak kentzeko. Guantak, ile motza duten karraskariak, Indietako untxien antza dute, eta Désirade irlan daude, iguanak bezala, Les Saintesetatik ere ibiltzen direla.



GUADALUPE

Urtarrilean tenperatura handiena

Guadalupeko batez besteko tenperatura handiena urtarilean 28°C-ra ailegaten da. Uztailean, 30°C-ra ailega daiteke eta 23°C-ra jaitzi. Otsailatik apirilera arte aldi idorrakoa da, hilabetero zazpi egun euria egiten du eta batezbesteko hezetasunaren %77.

Uztaila eta azaroa hilabeterik hezeenak dira, hemen 14 egunetan zehar euria egiten du eta hezetasun-tasa %85etako da. Euritean, urakanak agertzen dira. Bere alturagatik, Basse-Terre Grande-Terre baina hotzagoa eta euritsuagoa da. Alisioek klima berotzen dute.

Gualalupe Birginaren ohoretan

Kristobal Kolonek Guadalupe aurkitu zuen, eta gaur egungo izena eman zion -Guadalupe Birjinaren ohoretan-, Españ



niako Extremadurako eskualdean dagoela. Popularki, Kreole kulturari «Gwada» deitzen da.

Guadalupeko populazioa mestizoa da: amerindiarrak, europarrak, afrikarrak baita indiarra ere. Haien elkarrekin, denborarekin poderioz, Kreole kultura egin zuten.

Beren ekonomia turismoaren eta nekazaritzaren menpean dago. Bere BGP biztanle bakoitzagatik eta Frantzia metropolitarrak duena bakio berekoak dira. Horregatik Europako Batasunak alde arbuiautueni ematen dien egitura-fondoak etekina ateratzen ditu.

Eragin multikulturala

Guadalupeko kulturak eragin askotan edan zituen: frantziarra, afrikarrak, indiarak, eta Indiakoak. Nahaste hau irlako arkitekturan ikus daiteke: eraikuntza batzuek Frantziako kolonia-estiloa dute, edo Indiako tenpluak... Batera, gastronomia era askotakoa da, kultura guztien ezaugarriak, sukaldaritza kreola bakar batean nahasten dira. Etxe gehienetan kreolera hitz egiten da. Guadalupeko jaialdietan eta kultura-gertaeretan, emakumeek

tradiziozko jantzi kreola daramate: kolore biziak dituzten gonak (laranja, horiak) eta kolore bereko orrazkera, parpailazko brusa zuria, azpiko gona eta xala.

Hemengo artistarik ospetsuena Saint-John Perse olerkaria da, bere ezizena Alexis Léger da. Bera, Guadalupen jaio zen 1887.urtean.

1960.urtean Literatura-Nobel Sariduna izan zen, bere literaturari buruzko lanaren irudi orotarazleagatik. Bere lanen artean «Anábasis» liburua (1925.urtean) daukagu.

Uharteetan aparteko musika-panorama aurkezten da: zouka, kalypsoa, reggaea, eta beguinea, Guadalupen bizi direnek asmatu dutela esaten dutela, Martinika bizi direnak beharrez.

Guadalupeko historia kronologikoa

K.a. 3000.urtean, Guadalupeko artxipelagoetan jadanik gizakien agerpena zegoen, gutxienez horrela esaten dute aurkitutako hondakin arkeologikoek.

Gero, 330.urtean, Arawak amerindiarrak



Orinokoko badiatik (Venezuela) etorri ziren, uharteak kolonizatu. Arrawa herria baketzalea zen eta arrantzari eta nekazaritzari ekin ohi zieten.

XVIII.mendearen, Karibeko indiarrek irla inbaditu zuten. Herri gerrari honek Arawak dexema egin zituen eta irlari «Karuke»



GUADALUPE

ra" (ur ederrak dituen irla) izena eman zioten.

1493ko azaroaren 14an., Kristobal Kolonek, Amerikara bigarren bidaiari, irla aurkitu zuen.

XVI.mendearen hasieran, espainiarrek Guadalupen finkatu nahi izan zute bi aldiz, baina Karibeko indiarrek erresistentzi basatia eskaini zieten azkenean, 1604.urtean, beren nahia utzi behar izan zuten.

1635.urtean, Compagnie des Iles d'Amérique kolono frantziararen espedizio bati lagundu zion: Richelieu Kardenalak Frantziako enpresari-elkar-tea egin zuen, lehenengo Europako fin-kapena egiteko Guadalupen. 1635.urtean, Basse-Terreko hego-ekialdeko kostalderaino ailegatu ziren eta Karibeak dexema egin ondoren, artxipelagoa erreklamatu zuten Frantziarako.

1643-1664 bitartean, Guadalupen Charles Houel gobernadore izendatu zuten. Basse-Terreko hiribildua fundatu zuten eta Compagnie des Iles d'Amérique irla erosi zion. Frantziako Luis

XIV.k Guadalupeko markes-titulua eman zion. Une horretan ekonomia azukre-kanaberaren kulturarantz joaten da eta Lehenengo esklabo afrikarra eramandak izan dira eskulanaren behartasuna ase betetzeko, Karibeko indioak esklabu bihurtzen saiatzean, bere portzentaia murriztu zen.

1674.urtean, Frantziak, ofizialki, irla hartu zuenean, jadanik landaketa-sistema esklabotasunean zetzan. 1685.urtean, Code Noir (kodea) aldarrikatu zen, horren bidez, Frantziako kolonietan esklabotasuna kontrolatuko zen.. 1717.urtean, Kolonoek errege-poterearen kontra jarri ziren eta 1725.urtean, esklabuak matxinatu ziren.

1769-1763 bitartean, Ingalaterraren kontrako 7 Urteetako Gerran, berak uhartea hartu zuen Pointe-à-Pitre portua eratuz. Modu horretaz, Ingalaterrako eta Ipar Amerikako merkataritza oparoei Guadalupeko sukrea irekituz eta landaketen nagusiei AEBatako egurra eta janaria, prezio murriztuetan, inportatzen utziz.



Britainiako okupazioan zehar, Frantziako kolono askok diruaren kopuru asko lortu zituzten, izan ere, ekonomia oso azkar aurreratu zen. Baina 1763.urtean, Parisiko Ituna sinatu zen, eta berarekin frantziarrek, Guadalupe berriro bereskuratu nahi bazuten Kanadako nahiak bertan behera utzi behar izan zituzten. Itun honi jarraiki, gerra amaitu zen eta Ingalaterrak Frantziari Guadalupe eta Martinika itzuli zituzten.

1775.urtean, Guadalupek eta Martinika beren autonomiak lortu zituzten eta 1794.urtean, Frantziako iraultzan zehar, esklabotasuna ezeztatu zen.

Urte horretan, 1794an, Frantziako iraultzaren egoera aprobetxatuz, britainiarrek irla berri inbaditu zuten. Erantzun bezala, frantziarrek soldatuak bidali zituzten, taldearen buruan, Víctor Hugés,

nazionalista beltza, zeinek Guadalupeko esklabuak askatu eta armatu baitzituen. Tropak Guadalupetik irten ziren egunean, Hugés desegindu zuen eta 300 monarkiko hil zituen (haietariko batzuk landaketen nagusiak ziren). Beldurraren erregealdi baten hasiera zen, ondorioz: milia kolono baino gehiago hil ziren. Hugés Ipar Amerikako itsasontziak eraso zituen, eta ondorioz Ipar Amerikako herriak Frantziari gerra deklaratu zion, horregatik Napoleonek general bat bidali behar izan zuten




GUADALUPE

Guadalupera matxinatu zirenak irabazteko, gobernu preiraultzailea berriro ezartzeko baita esklabotasuna ere.

1802.urtean, Richepance jeneralak esklabotasuna berriro ezarri zuen (Napoleonek agindu ziolako) eta Delgresen matxinada erreprimitu zuen.

XIX.mendearen zehar, Frantziako Mendebaldeko Indietako irlarik oparoena izan zen Guadalupe eta britaniarrek gutiziatzen eta inbaditzen jarraitu zuten. 1810-1816 biartean, okupatu zuten, (Vienako Ituna sinatu zen urtean), honen bidez Frantziari uhartea itzuli zen, eta handik aurrera bere menpekotasuna mantentzen du. 1848.urtean esklabotasuna ezeztatu zen, Víctor Schoelcher politikoko frantziarrak kanpaina bat zuzendu ondoren. Hurrengo urteetan landarke-taen nagusiek Pondicherryko eskulana sartu zuten kanabera-soroetan lan egiteko.

1848ko apirilaren 27an., Víctor Schoelcherren esklabotasuna ezeztatze-ko proposamena onartua eta sinatuta izan zen, eta handik aurrera Indiako eta Asiako



beste eskualde batzuetatik langileak ekarri zituzten.

1871.urtean, Frantziako Parlamentuan ordezkaria izaten hasi zen eta Hégésippe Légitimus bere lehenengo diputatua izan zen.

1946ko martxoaren 19an., Guadalupe kolonia izatetik Frantziako Errepublikako itsaso bestaldeko departamentua izatera pasatu zen.

2007ko otsailaren 22a., San Martingo uharteak "Saint Martin" eta San Bartolomeko uhartea "Saint-Barthélemy", Guadalupe-rik banatzen dira Frantziako Errepublikako lurralde-elkarte bihurtzeko.

Guadalupe batera, eskualde administratiboa eta Frantziako Errepublikako itsasoz bestaldeko departamentua da, honek esan nahi du Europako Batasunaren hiri-inguruetako eskualdea dela.



KARIBEKO UHARTEAK

LUR GARAIAREN UHARTEA

Terre-de-Hauteko Antilletako irla txikia eta patxadatsua (Lur Garaia ere deituta), izaera frantziarrarekin eta itxura mediterraneoan, Karibeko uharte ederrenetariko bat da. Nahiz eta oso txikia izan, eta asteburuero eta goi-garaian, turistaz gainezka egon, mendi bolkanikoen eta badia sakonen pasia eskaintzen ditu.



Uhartetar gehiena arrantzaz bizi dira; portuan sareak adabatu ohi dituzte. Han beren itsasontziak -santoises- ikus daitezke, hauek bertako fabrikazioz dira eta beren kolore distiratsuak harrizten gaituzte.

Irla honetan kotxeak debekaturik daude,

horregatik ibili behar edo motoa alokatu behar izango ditugu.

Terre-de-Hauteko historia ez da Guadalupeko beste alde batzuetan bezala. Oso mendikatsua eta idorra zenez azukrekanabera soroak edukitzeko, inoiz ez zuen esklaborik eduki, hau dela kausa



LUR GARAIAREN UHARTEA

bere populazioaren artean, marinel normandiarren eta bretoiarren ondorengoak aurki ditzakegu, haiek lehenengo kolonoak izan zirelako.

Irla honetako biztanle gehienak Bourg des Sain-tesen bizi dira, herri eder horrek izaera normandiarra erakusten du. Bere kale estu ertzetik ibiliz, gorri-koloreko teilatuak leihatilikin, eta ibis-koz gainezka dauden loreontziak ikus ditzakegu. Ferryak turistaz beteta agertzen direan, zarata hasten da, baina gerokoa lasaitasuna eta bakea da, alde hau oso egokia da atseden hartzeko. Jantoki txikiak, izozki-dendak, motoak alokatzeko dendak, arte-galeriak, eta



opari-dendak dauzka kale nagusian. Kale hori egunez oinezkoentzako eta gauez trafikoari irekita dago. Portuko iparraldeko aldean Napoleonen gotorlekua, oso ondo kontserbatua dago (XIX.mendearen erdialdekoa). Marie-Galanteko uhartetik Terre-de-Hauteraino etor daiteke Iguana Ferryan.



KARIBEKO UHARTEAK

MARIE GALANTE

Marie Galante irla landatarrari “ehun errota dituen irla” esaten diote. Guadalupetik 40 km-ra kokatuta dago. 185 km² eta 16.000 biztanle ditu. 1493ko azaroaren 3a., Kristobal Kolonek izena eman zion, Karabela baten izena eman zion irlari (Mendebaldeko Indietarako bigarren bidaian). Hasieran frantziarreko kolonizatu zuten XVII.mendean. Haiek esklaboak ekarri zituzten; izan ere, garai horretako ekonomia zukre kanabera zetzan. Baina gaur egun, ekonomia turismoan datza, zer esanik ez!.



Irla hau guztiz biribila da, masa-turismoak ez du ezagutzen. Paisaia era askotakoa da: hondartzak, itsasertzak, azukrekanabera soro handiak... Maria Galante irlan ematen du denbora

geldituta dagoela. Idiek gurdinetik bultzatzen dituzte. Herri txikietan kolore askotako txalupaz beteta daude. Inguratzen duen guztiak berde-turkesa koloreko hondartzaz eta lakuz gainezka dago. Honi



MARIE GALANTE



gaineratu behar diogu bere hondartzek harea finua eta zuria dutela, Antilla Txikietako hondartza ederrenetarikoa dira. Herri hauen artean bat gailentzen

da: “*Gueule du Grand Gouffe*”, zeinek arrokan tailatua arku natural baitu, ozeanoraino ailegatzen dena.

Bere klima tropikala da, urte osoan zehar tenperatura beroa da, izan ere, alisioek tenperatura epeltzen dute. Dena atsegina da: hondartza ederrak, bere biztanleen maitagarritasuna, bere bizitza lasaia. Leku oso aproposa oporrak pasatzeko.

XIX.mendearen hasieran, Maria Galante irlan 100 azukre-aparatu zeuden, jadanik beren hondakinak zelaietatik banatuta ikus daitezke. Gaur egun, ekoizpena azukre-aparatu bakar batean finkatuta dago, eta azukre-kanabera



ron bihurtzen da hiru destilategitan: La Distillerie Poisson, Saint-Louis eta Grand-Bourgen bide erdirara, irlakoririk onena botilan sartzen du, Père Labat etiketa jarritz. Distillerie Biellen, Grand-Bourg eta Capesterren artean, lan egiteko modu zaharra ikus daiteke.

Grand-Bourgen merkataritza- eta administratibo-gune zuhurra dago (hego-ekialdeko kostaldean). Azken herria arrantza-herria da, irlako yate-ainguralekua, eta Guadalupetik etorri zen ferryarentzat bigarren-mailako portua.

Marie-Galante bisita egiteko, Port Autonometik egunero itsaontziak ateratzen dira (Brudey Frères konpainia). Ailegatu bezain laster, portuan kotxea aloka daiteke eta egun batean irla osoan zehar ibil daiteke. Hantxe, nekazariak azukre-kanabera eskuz mozten ikus daitezke. Hondartza ederrenen artean Feuillékoa Folle Ansekoa (La Cohoba hotelaren atzean) aipa ditzakegu.

Irlaren historia

1493ko azaroaren 3an., Kristobal Kolonek bere bigarren bidaian irla aurkitu zuen. Kolonek irlari bere karabelaren izena jarri zion -“*La Marigalante*”. Hasieran, Arahuekoek “*Kallina*” esaten zioten.



Antilla Txikietako irla hau betidanik oso desiratua izan da eta hiru mendetan zehar baino gehiago, Karibeek, frantziarrek, ingelesek eta holandarrek nahi zuten. XIX.mendean, irla frantsesa izatera pasatu zen eta erasoak gelditu ziren. Handik aurrera azukre-tradizioarekin jarraitu du.






KARIBEKO UHARTEAK

DÈSIRADE UHARTEA

1493.urtean, Kristobal Kolonek bere bigarren bidaiari aurkitu zuen Désirade uhartea. Administratiboki itsasoz bestaldeko alde frantziarrekoa da eta Guadalupeko uharteko departamentua da (Antilla Txikietan). Grande-Terreko ekialdeko tontorretik 10 km-ra kokatua dago. 20,64km² eta 19.820 biztanle ditu (2005ean). Biztanle gehienak Beaséjourren bizi da.

Iral hau ez dago beste irlak bezain garatu eta populatua, gainera



turista asko ez dira hara joaten. Duela urte batzuk, bere isolamendua gertatu zen, izan ere, bi zenturian zehar, legnartsuen kolonia egon zen (1950.urtean ospitale legendarduentzat itxi zen). Gaur egun, berriz, uhartarrak arrantzari, nekazaritzari, ardi-haziendari, itsasontzigitzari eta turismo hasiberriari ekin ohi diote. Guadalupetik irla hau ikusten denean, itsasontzi eroria ematen du. Désirade uhartek



11km-ko luzera eta 2 km-ko zabalera ditu. Basamortu-lurralde zati bat, kokondoak eta itsas mahastiak ditu, baita kak-

tus-lorategi ederra ere (ekialdeko muturrean).

Iparraldea jenderik gabe dago, eta bere itsasertz arroksua itsas zabalean jartzen da, Hegoaldeak, berriz, hondartza hareatsuak eta arrezifeak ditu. Hegoekialdean portua eta aireportua daude. Bere herri nagusia Grande Anse (Le Bourg) da. Baina herri txikiagoak daude, esate baterako, Le Souffleur eta Baie, koralezko hareaz eragindak hondartza ederrekin.





KARIBEKO UHARTEAK

MONTSEERATEKO UHARTEA

Kristobal Kolonek aurkitu zuen 1493. urtean. Itsasoz bestaldeko lurraldea da, zein Erresuma Batuen menpean baitago. Puerto Ricoko hego-ekialdera dago (Karibe itsasoan).

Haizebeteko uharteetako irla da, Antilla Txikietakoa. Antiguako hego-mendebaldera eta Guadalupeko ipar-ekialdera dago. 102km² ditu. Bere hizkuntza ofiziala ingelesa da eta bere moneta Karibeko ekialdeko dolarra.

Gehienak mulatoak dira

Herrian, gehienak mulatoak dira, haie-tariko batzuk irlandarren eta afrikarren ondorengoak; baina gutxiengo zuria ere dago. Gehiena protestantea da (metodistak, pentekostaleak, zazpiga-



rren egunaren adbertistak); orduan, Anglikanoen %45, Katolikoek %35, eta beste gutxiengo batzuen %15 daude.

Montseerateko ekonomia arrantzan eta turismoan datza.



Irla bolkanikoa eta mendikatsua

Irla osoa bolkanikoa eta mendikatsua da. Bere alderik altuena Soufriere Hills sumendia da (914m); sumendia aktiboan dago. Kostaldean hondartza txikiak daude.

Bere klima tropikala da, tenperaturaren aldaketa txikiakin. Ekaina eta azaroa bitartean, urakanek uhartea astintzen dute. Sumendi horren ondorioz, 1995. urtean hiriburua utzita izan zen.

Uztailaren 18an, sumendia erupzioan sartu zen eta egun horretatik noizean behin, laba eta errautza botatzen jarrai-

tzen du, hau dela kausa, irlako populazio gehienak migratu egin duela. Gaur egun Montseerateko hegoaldea ia jenderik gabe dago, Plymoutheko aldea batez ere. Lasaitasuna Plymouthekora itzuli arte, Bradesko herrian Gobernuaren Egoitza dago.

Erupzioa gertatu baino lehen, 13.000 biztanle zeuden. 9000 baino gehiagok ihes egin zuten, baina jende asko berriro itzuli dira. Gaur egungo populazioa 9500 biztanle inguru dago eta gehiena irlako ipar-ekialdean bizi da.

Irlakaren kulturaren eragin europarrak eta afrikarrak daude. Aipatzekoa da halaber, eragin irlandarra, izan ere, lehenengo



MONTSEERATEKO UHARTEA

kolono zuriak irlandakoak izan ziren.

Irlaren historia

1493.urtean, Kristobal Kolonek Montserrateko uhartea aurkitu zuen, Kolonek Montserraten Birjinaren ohoretan izena eman zion.1632.urtean lehenengo kolono britainiarrak ailegatuko ziren. 1664-1668 eta 1782-1784 bitartean, Frantziak bi aldiz irla hartu nahi zuen baina britainiarrek poterea berreskuratzeari lortu zuten.

1966.urtean, irla Haizebeteko Federazioaren zatiaren moduan ez zen berriro administratu, eta 1967an, bere zuzendariek bere estatus kokonialarekin jarraitzea erabaki zuten.1989.urtean, Hugo urakanak irla astindu zuen. Sei

urte geroago,1995ean, Soufriere Hills sumendia erupzioan sartu zen eta Plymouth hiria hondatu zuen, hau zela kausa bere populazioak irla ebakatu zuen.

Estatuburu sinbolikoa

Lurralde hori Erresuma Batuen menpean dagoenez, gobernadoreak estatuburuaren lan sinbolikoa du eta Inglaterrako Erregina ordezkatzeko du. Hautatutako Ministro nagusi batek Gobernuburuaren eginkizunak bete behar ditu. Justizia Auzitegi Nagusia Karibeko Ekialdeko Gorte Gorena da.Montserrateko Karibeko Erkidegoko kidea da baita Karibeko Ekialdeko Estatuaren Organizazioa ere.




KARIBEKO UHARTEAK

ANTIGUA

Nahiz eta 350 urtean zehar irla hau nagusitasun britaniarra eduki, 1981.urtean nazio independente bihurtu zen Antiguan irla. Baina gaur egun ere, ezaugarri batzuk eta zapora anglosaxoia izaten jarraitzen du.

Bere kostalde muxarratuak harea zuriz egindako badi ederrak eratzen ditu, hemen landaredia hondartzara berara hurbiltzen da. Arrezifeek eta ur-lasterrek urdin turkesa-koloreko izugarriko marrazkiak egiten dituzte ertzetan.



Karibeko irla ñimiñoa da Antigua. Berak 280 km2 ditu eta hondartzaz beteta dago (-365 hondartza). Bere kostalde muxarratuak harea zuriz egindako badi ederrak eratzen ditu, hemen landaredia hondartzara berara hurbiltzen da:

palmondo ilunek eta zuhaixka txikiak itzala egiten dute, eguzkitik babesteko, eguerdiko orduetan batez ere.

Arrezifeek eta ur-lasterrek urdin turkesa-koloreko izugarriko marrazkiak egiten dituzte ertzetan, izan ere, ez dago Anti-



ANTIGUA

guaren irla bakarrik, baizik eta bi Antigua, bestea itsasoaren azalaren azpitik dago, eta itsaspeko alegiazko erresuma eskaitzen du, kostaldeko arrezife kikirrikiz beteta, hemen pailazo arrainak, damatxo-, zirujau-, tximeleta- edo aingeru arrainak, madreporean artean igeri egiten dute.

Irlako hiriburua St. Johns da eta handik gertu, Fort Bay hondartza dago.

Ford Road errepidea hartzen badugu eta gero Barrymore Hotelaren sahiesbidea, ezkerretara Fort Jamesen hondamenean ondoan Fort Bay hondartzarekin topatzen dugu. St. Johns-etik gutxi kilometrora iparraldera, hondartz xarmangarri-saila aurkituko dugu. Alde honetan turismoa gogotik hazten da eta horregatik jatetxez, tabernaz eta hotelez pikardaturik dago.

Runaway Bay hondartzarik lasaiena da, Dickinson Bay-ek, ordez, beste erosotasun mota bat eskaintzen ditu: urkirol asko.

Irlako ekialdeko kostaldeak harea



estuzko marra bat marrazten du: Half Moon Bay hondartza (ilargierdi-itxurakoa), kokondo inguratua.

Errepide nagusiaren ondoan, hegomendebaldeko kostaldean, Dark Wood Beach agertzen da, arboladi zabalez inguratua. Alde bikaina da urpekaritza praktikatzeko.

Hondartza ederrenetariko bat Long Bay hondartza da. Txikia da, koral-hesi batez babestua. Devil's Bridegeko iparraldera kokatuta dago, Atlantikoko olatuak errudunak dira, izan ere, karrearrizko arku naturala egin zuten halako hondartza eragiteko.

Irlako kondairen arabera, XVIII.mendean esklabuak handik itsasora botatzen ziren beren burua hiltzeko, deabruak madarikatu zituelako.

Klima tropikala

Hemengo klima bikaina da, izan ere, temperatura normalean 20°C-tan egon ohi da eta oso gutxitan 30°C-tik gainditzen du. Haize alisioek klima epela lortzen dute eta euri urria da, baina udan biziagoa da, horregatik, hilabete onenak irla bisitatzeko, abendua eta apirila artean daude. Lehor-te-garaian -uztaila eta abuztua bitartean-, Antigua marroi-kolorea hartzen du agorteagatik.

St. Johns hiriburua itsasoertzean dago. Ozeanoaren urdin-koloreko marra nonahikoa egiten da. Mendeetan zehar, bere jendea nahasten



ari da, baita beren arrazak eta kulturak ere.

Hiri beroa da, espaloi estuekin eta trafikoz zaratatsuekin. Etengabeko joan-etorriekin, baina portutik urruntzen garen neurrian, izkanbila hauek desagertzen hasi dira. Landaretza etheen artean ezkutatzen da eta bizitasun tropikalarekin hezten da.

Beste garai batean, St. John's merkataritza-gune nagusia izan zen -Antilla Txiki-tako merkaturik handiena-.

Gaur egungo hiria ez ditu bere jatorri kolonial guztiak galdu. Hiru kale jendetsuenak dira: Market Street, hemen fruita eta barazki asko saltzen dira baita esku-lagintza tipikoa eta estanpatu deigarriko ehunak ere. Public Street, estuago eta nabarragoa -ekialdeko bazarra dirudi-, eta Hight Street, kosmopolitagoa, non aire-konpainiak eta banku multinazional handiak elkartzen baitira.

Karibeak irlan bizi izan ziren

Kolonek irlen bila joan baino lehen, irla

honetan karibeak bizi ziren jadanik eta Wadadli deitzen zioten. Karibeko beste irla batzuk bezala, nekazaritza, arrantza eta ehizatik bizi ziren.

Mundu Berrirako bigarren bidaiari, Kolonek lurra hartzean eta europarrak artxipelagoan bizi izaten hastean, prozesu bat hasi zen: trukeak egiteari ekin zioten eta animaliak, landareak, gaixotasunak, jendeak eta ideiak aldatzen hasi ziren.

1493.urtean, Kolonek berak haizebeto irla txiki horri "Antiguako Sta. Maria" deitu zion - Sevillan dagoen Birjinaren estatua-ren ohoretan-. Eta nahiz eta egun mundu osoak bere izena espainiarra kontserbatzen duen, hango jendeak azentu ingeles zorrotz batekin esaten du, agian almirantea ez zelako gelditu eta espainiarrek inoiz ez zuten kolonizatu. Hasieran frantziarrek kolonizatu zuten eta gero ingelesek egin zuten.

Nahiz eta 1981.urteetik Antiguak, Barbudak eta Redondak nazio independentea egin, nagusitasun britainiarren mendeak ez dira goizetik gauera desagertu. Gaur egun ere ezaugarri hauek hizkuntzan, eta



ANTIGUA



ohituretan ikus daitezke eta irlan dauden gotorlekuetan batez ere.

English Harbour Aparteko portu naturala Karibeko portu natural onenetariko bat da English Harbour.

Antzinean, Mendebaldeko Indietako Almirantego Britainiarren Kuartel Nagu-

sia izan zen. XVIII.mendean, handik itsasoratzen ziren ontzidi frantziarrei kalteak egiteko: Gaur egun, Britainia Handien eta Frantziaren arteko borroka kolonialik ez dago, eta bere uretan yate eta belaontzi iparramerikar batzuk ikus daitezke.

Ingelesak Antiguako irlara ailegatu zirenean, azukrekanabera sailak landatu nahi zituzten, izan ere, XVIII. Mendetik aurrera, produktu horren kontsumoa asko hazi zen Europan. XVIII.mendearen amaieran, irla osoa azukrekanaberaz estalita zegoen eta Mendebaldeko Indietako zukrea, Britania Handiaren diru-sartze garrantziatsuen zatia

zen.

Antiguako gaur egungo biztanle asko indarrez ekarritako esklabuetatik ondorengoak dira. Hain zuzen ere, English Harbour eraginda izan zen, interes ingelesak babesteko.



KARIBEKO UHARTEAK

NIEVES UHARTEA

Nieves uhartean Haizebeko uharteetan kokaturik dago (Haizebeko uharteak: Hemen, mendebaldetik ekialdera aurki ditzakegu: Aruba, Curaçao, Bonaire, Hegazkiak, Haitz Handiak, La Orchila, Dortoka, Kotxea, Kubagua, eta Margarita.

Uharte hauek Venezuelako kostaldean aurrean kokaturik, eta Hego Amerikako plataforma kontinentalaren gainean daude). Kristobal



Kolonek bere izena eman zion 1498.urtean.

93,3 km2 ditu. Bere mendirik altuena Edurne mendia da (985m). 10.000 biztanle inguru ditu baita Amerikako analfabetismo tasarik handiena ere (%98). Gaur egungo hiriburua Charlestown da.

Berak San Kristobalگو uhartearekin (iparraldera dagoena) San Kristobal eta Nieves Federazioa eragin du (Saint Kitts eta Nevis). Irla horrek 13 sumendi ditu (duela 6000 edo 10.000 urte atzerantz erupzioan sartu zen).

Vance Amory gaur egungo ministroak independentziaren inizatiba egin du.





KARIBEKO UHARTEAK

SAN EUSTAKIO

Karibe itsasoan dago, Virjina uharteetako ipar-ekialdeko 900 km-ra. Saint Eustatius edo San Eustakioaren irlak 21 km² eta 3091 biztanle inguru ditu (2006.urtean). Antilla Txikietako Haizealdeko uharte-taldekoa da.

Irlaren hiriburua Oranjestad da. Bere klima tropikala da eta ipar-ekialdeko alisioek onurak ematen diote irlari. Ia bere hedapen osoa bete du Mozinga mendiak -602m-ko sumendia-. Europako Batasunaren itsasoz bestelaldeko lurraldekoa da San Eustakio. Bere ekonomia turismoan datza. Ekoturismoan, zehazki, dibisa-iturri nagu-

sia dela. Bere hondartza birjinek eta mendiek turistari edertasun bitxia ematen diote. Gobernuaren sektorea enplegatzaile handiena da. San Eustakioaren Web ofizialaren arabera bere langabezia-tasa oso txikia da, dena den ez du aipatzen zifra ofizialik. AEBekin sinatu zuten akordio baten arabera, uharte



honetan konbekzioak egiten dituzten organizazio iparramerikarrek egindako zergak ondoriozta ditzakete.

Irlaren historia

Esaten da, 1493ko azaroaren 13a. Kristobal Kolonek irla ikusi zuela, baina ez zen lehorreratu. 1640.urtean holandarrek

San Eustakioaren irla kolonizatu zuten. XVII eta XVIII.mendeetan zehar, azukrea eta rona industriak nagusiak izan ziren eta geroago arrantza. 1818.urtean Holandak irla hartu zuen.

2005eko apirilaren 8a. erreferenduma ospatu zen, bere biztanle gehienek Antilla holandarren barruan egon nahi izan zuten, baina beste lau irlatan (Curaçao, Bonaire, Saba eta San Martingo alde holandarra) federazio hori deseuztatu nahi izan zuten, orduan 2006ko urriaren 12an. akordio batera ailegatu ziren: Herbehereetako gobernuak Antillak desegingo ditu 2008ko abenduaren 15a. horregatik San Eustakio irla berezi bat eta banatua -Herbehereen barruan- izatera pasatuko da.





KARIBEKO UHARTEAK

SABA

Karibe itsasoan dago, Puerto Ricoko hego-ekialdeko 250 km-ra inguru. Irla horrek 13 km² ditu, eta alde gehiena Mount Scenery jarduerarik gabekoa sumendiak betetzen du (888m). Bera Holandako erreinuko punturik gorena da, izan ere, Saba, Europako Batasunaren itsasoz bestealdeko lurraldekoa da.

Sabako hiriburua The Bottom da. 1300 biztanle inguru ditu. Bere klima tropikala da. Ipar-ekialdeko alisioek onurak ematen diote irlari. Beste herri garrantzitsu batzuk dira, besteak beste, Windwardside, Hell's Gate eta Saint Johns. Gaur egun, Sabako uhartea helbide turistikotzat hartzen da, baita urpean

igeri egiteko aparteko lekutzat ere. Hor, oraindik orain, zabaldutako portua dago (2006.urtean), eta aireportu txiki bat -San Martinetik serbitzuarekin-. Batera, San Martinetik joaten den transbordeadorea dago. Sabari beste izen bat ematen diote "Orbangabeko erregina", izan ere, zeharo garbia kontserbatzen da, egune-



ro langile-talde batek zaborreria osoa kentzen dutelako (bai hiri nagusitan, bai "Bidea"n -irlako lehorreko komunikabide bakarra-).

Sabako parpailak

Sabako parpail ospetsuak edo "parpail espainiarrak", esportazioaren produktu garrantzitsuak izan dira. 1870eko hamarkadan, Mary Gertrude Hassell Johnson

Caracasko komentu batera bidali zuten ikastera, han artisautza mota hori ikasi zuen. Irlan, teknika hau ospetsua egin zen eta damek, merkantzia-erakundeetan zeuden AEBetako enpresen helbideak kopiatzen zituzten eta hango enplegatuei idazten zieten. Sarritan, parpail-eskaerak jaso ohi zituzten, eta pixkanaka-pixkanaka aparteko etxeko industria jaiotzen hasi zen.

Bide nagusia, edo "Bidea" (The Road), irlako lehorreko komunikabide bakarra da. Lambert Hassellek bere eraiketa zuzendu zuen, berak bidegintza ikasi zuen, korrespondentziaz. Eskuz eginda izan zen bidea eta 1958.urtean bukatu zen. Bere ibilbidea beldurgarria da, kurbaz beteta (adibidez, Hell's Gaten daudena, baina The Bottometik Fort Bay-



SABA

ra joaten direnak oso arrisku-garriak dira).

Holandarrek kolonizatu zuten 1640.urtean

Dirudienez, Kristobal Kolonek irla hau ikusi zuen 1493ko azaroaren 13a. baina ez zen lehorreratu. 1640.urtean, Holandarrek kolonizatu zuten.

XVII-XVIII mendeen artean, industria nagusiak azukrea eta rona ziren eta geroago arrantzak. 1818.an Holandak Saba hartu zuen.

Lehenengo finkatzearen aztarnak (1640.urtekoa), Spring Bay-en ikus daitezke. The Bottomen badago beste gauza bat kontuan hartzeko: harriak landutako eskailera-mailak, Ladder Bay-ra joateko. Irlan sartzen ziren gauza guztiek handik igo behar izaten zuten (XX.mendearen amaierara arte).

2004ko azaroaren 5a. irlan erreferenduma ospatu zen, boto-emaitzen %86,05 ek Antilla Holan-



darrekiko egungo estatusa bukatu nahi izan zuten, Holandako gobernuarekin negoziatu ondoren, 2006ko urriaren 12a. adostasuna lortu zen, handik aurrera Herbehereetako irla berezia izango zen (2008ko abenduaren 15etik aurrera).



KARIBEKO UHARTEAK

ST. MARTIN

Irla honek Munduko lurralderik txikiena du. Frantziak eta Holandak bere lurraldea bera dute. St. Martinen uharteak 13 km-ko luzera eta 15m-ko zabalera ditu, bere hedapena 96km2-koa da. Irla pribilegiatua da, izan ere, Karibeko klimak bedeinkatu du eta itsas garden batek bere hondartza ederrak bainatzen ditu, honi gaineratu behar diogu bere tenperatura ametsa dirudiela.



17mendeen Brasiletik lehenengo biztanleak ailegatu ziren -arawakak-. Antilletako beste irla batuetan gertatu ez bezala, hemen antropofagoek ez zituzten jan. Gainera azken hauek uharteetara ailegatu ziren mende batzuk geroago. XV.mendearen azken urteetan, espainiarrek ailegatu zirenean, irla jendez hustu zegoen eta ez zioten garrantzi handirik eman, izan ere, ez zegoen ez urrerik ezta zilarrik ere. 1631.urtera arte jendez hustu jarraitu zuen, orduan frantziarrek eta holandarrek bi kokaleku ezarri zituzten. 1633.urtean Espainiak St. Martin inbaditu

zuen eta Europako 130 kolono deportatu zituen.

1644.urte arte, 180 espainiar inguru Great Bay gotorlekuan bizi izan ziren. Orduan, Peter Stuyvesantek -Mendebaldeko Indietako Konpainia Holandarrekoa- 800 soldadu-eskuadra agindu zuen, espainiarrak setiatzeko.

Lau urte geroago -1688.urtean-, espainiarrek bertan behera utzi zuten irla. Orduan holandarrek eta frantziarrek itzuli ziren eta hitzarmen bat sinatu zuten lurraldea zatitzeko, (askotan hitzarmena hautsi zuten, eta 1713.urte arte, potentzia biek irlaren



ST. MARTIN



menderatzea txandakatu ohi zuten, garai honetan Utrecht-eko Itunak St. Martino aldea itzultzeraz behartu ziren holandarrei eta beraz, Frantziako koroak lurraldea hartu zuen.

1817. urtean, Frantziaren eta Holandaren arteko gaur egungo muga ezarri zen eta tabakogintza, kotoigintza eta azukregintza hedatzen hasi ziren. Lan horretan, makina bat esklabo afrikarrek lan egin zuten.

XIX. mendearan erdian, esklabotza deuseztatzea gertatu zen eta horrekin batera, pixkanaka-pixkanaka uzten erorketa ailegatu zen, behar-beharrezko jaki eta produktu guztiak inportatu ahal izan arte.

1943. urtean AEBk irla hartu zuen eta "Juliana Printzesa" aireportua eragin zuen. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren irla itzuli zuen. Gaur egun, goren aldian dago turismoa eta alde batetik, St. Martino ekonomia eragile handi bihurtu da, baina bestetik bere jatorrizko xarma galduarazi du.

Irla osoa kosmopolitismoarentzako abestia da. Gainera, hemen hizkuntza

asko entzun daitezke. 77 nazionalitateetatik hizkuntzak daude, horregatik Karibeko New York-a esaten zaio. Elkarriketetan, frantziarra, ingelesa, nederlandera, gaztelania, kreolera eta papiamentarra nahasten dira. Halaber, zuriak, beltzak eta mulatoak

arazorik gabe bizi dira. Biztanle gehienak, mulatoak eta beltzak dira -Afrikatik etorritako esklabuetatik ondorengoak-. Frantziako aldea -Saint Martin-, ederra da, hondartza bikainekin eta hirigintza-garapen onargarri batekin. Bere moneta franko frantsesa da. Bere hedapena 54'5 km²-koa da. Alde holandarra -Saint Maaten deituta-, ez da oso handia, 41'5 km² inguru du. Moneta ofiziala Antilletako florina da. Nahiz eta irla osoan dolarra onartu eta bere hizkuntza ofiziala nederlandera izan, pixkanaka-pixkanaka ingelesa aurrea hartzen ari da.

Administrazioak autonomia politika du, eta Holandako koroarekin lotuta dago. Hemen populazio asko bizi da, eraikuntza-dentsitate handiena dago, nazioarteko hegaldiak jasoten dira eta itsas bidaiak -Ipar Amerikako turistaz beterik-

Hondartza eksklusiboak

Irla honetako xarma handienetarikoa bat da bere barneko urmael handia. Horregatik, Karibeko belaontzi guztiek han



lehorratu nahi dute. Beste xarma handi bat bere hondartza ederrak dira. Irlako kostaldeak 38 haretza eta 35 km-ko harea fina ditu. Bere ur gardenak ezinbesteko tenperatura du. Hondartza guztietan nudismoa egin daiteke. Guztiak publikoak eta debaldekoak dira, baina batzuetan hara joateko edozein luxu handiko hoteletako lorategitik pasatu behar da.

Anse Marcel, hondartza txiki, dotore eta lasaia da. Hemendik izugarriko ilusentziak ikus daitezke. Orient Beach beste hondartza bat da, honek 2 km-ko harea zuria ditu, baita urdin-turkesa-koloreko itsaso ederra ere. Ilargierdixurakoa du. Hemengo bainua oso laketa da eta windsurfa edo uretako motorrekin praktika daiteke. Orient Bayko iparraldera, hedatzen da Cul de Sac-eko porturaino, hemen karelez kanpoko txalupa batzuek Pinel irlatxora jendea eramaten dute. Orient Beach-etik hoge minutura kotzez.

Frantziako irlako hiriburua dago -Marigot-. Herri txikia

da, goizero azoka txikia antolatzen dute eta gauero jatetxeetako kandelak Frantziako Karibea argitu ohi dute. Marigot, San Luisen gotorlekua itzalpean hezi da. Hiriguneak, erakunde karibetar tipiko batzuk kontserbatzen ditu -egurrezkoa eta pastel-kolorekoak-, gainera Arawakek utzi zituzten aztarna arkeologikoentzako Museoa dute. Holandako aldeak ere hondartza basati batzuk ditu. Hemen ez dago txosnarik, itsasoaren marmarra aztoratzen. Guana Beach eta Cupekoy, hondartza liluragarriak dira non esklabo beltzen izpituak bainua hartzen baitute.





KARIBEKO UHARTEAK

BIRIBIL IRLA

Biribila Irla jenderik gabeko harkaitz handia da (Haizebeteko uharteetan). Antiguako eta Barbudako Estatuaren zati administratiboa eratuz.




XIX.mendearen hamaieran, Matthew Dowdy Shiell bankari irlandiarak erreklamatu egin zuen, Inperio Britainiarrara sartu arte. Shiellek bere semeari Biribila irlako erregearen titulua eman zion, baina gaur egun badaude eztabaida asko ia norena den titulua, baina oraingoz, irla Antigua eta Barbudaren subiranotasunaren menpean dago.

Kristobal Kolonek bere bigarren bidaia aurkitu zuen

Kristobal Kolonek bere bigarren bidaia irla aurkitu zuen eta "Sata Maria biribila duena" bataitu zuen. Bere semearen ustez (Hernando Kolon), indiarrek Ocamarino deitzen zioten. Dena den, irla garrantzi gabeko harkaitz handia zenez, Amerika kolonizatu nahi zuten

potentzientzat ez zuen garrantzia handirik eta horregatik, mende askotan zehar korsarioen babaslekua izan zen. XIX.mendearen hamaieran, bere interesa hasi zen: Erresuma Batuak bere ondasunei lotu zien 1872an, estatubatuarrek lehengo ez egiteko, izan ere, irla alumina-fosfato asko daude(zangen guanoak -gorotza- eragiten du). 1865.urtean, Matthew Phipps Shiell bankariak erreklamatu zuen bere lehengo semearen jaiotasuna ospatzeko. Gero 1880.urtean erregea koronatu zuen. Antiguako apezpikuak zeremonia nagusitu zuen. Urte askotan zehar, Shiell familiak irlaren ondasuna erreklamatu egin zuen eta nahiz eta lortu ez, errege-titulua erabiltzen jarrai zenezaketen. Gaur egun, Biribil Erresuma alde batetik joku literarioa da eta Javier Marias idazle espainiarrak bere monarka da, baina bestetik, inoren batek titulua -egiatzat- erreklamatu egin zuen, esate baterako William Leonard Gatesen kasua, berak Leo Errege izendatu zuen. Inperio britainiarrekoa izan ondoren irla horretara jendea joan zen fosfato-gordete-



gietan lan egitera. Urteroko ustiapena 7.000 tonakoa zen. 1901.urtean, irlan 120 pertsona inguru zeuden baina Lehen Mundu Gerratik orain arte bertan behera utzita izan zen. Gaur egun irla hau Antigua eta Barbudaren zatia da eta dependentziazat administratzen da.





KARIBEKO UHARTEAK

ANGUILA UHARTEA

Anguila itsasoz bestaldeko lurralde britainiarra da. Haizebeteko uharteetako iparraldeko muturrera dago (Karibeko Antilla Txikietan).



Artxipelago horrek Anguila uharte eta jenderik gabeko Scrub, Dog eta Sombrero (Kapela) uharteak osatzen ditu, baita jenderik gabeko irla hurbilak ere.

Irla hori San Martingo uhartetik gertu dago, Guadalupeko departamentu frantziarrakoa da hego-ekialdean, mendebaldera, berriz, Birjina uharte britania-

rrak daude.

1650.urtetik Erresuma Batearen menpe dago.

91km² eta 13.377 biztanle ditu. 850 biztanle hiriburuan -The Valey- bizi dira. Bere hizkuntza ingelesa da eta moneta Karibeko ekialdeko dolarra.

Populazio gehiena protestantea da (anglikanoak, metodistak, adbertistak



eta bautistak) baita gutxiengo katolikoa ere badago.

Etnikoki, populazio gehienak ondorengo afrikarra du, gutxiengo zuri eta mulatoekin.

Lursaila, jeneralean, harrokatsua eta baxua da. Anguila uhartean bakarrik laku txiki batzuk daude.

Bere klima subtropikala da, bere batezbesteko tenperatura 27°C-koa da.

Turismoaren menpe

Anguila irlak baliabide natural gutxi ditu eta ekonomia turismoaren, atzerriko bankuen, arrainatzaren eta emigranteen dibitsen menpean geratzen da.

Dena den, 1995. urtean, Luis urakanak kalter handia egin zion turismoari baina 1996an berreskuratu zen.

Turismoa gehitu zen heinean, eraikuntza hasi zen eta honek esan nahi du ekonomia aurrera joan dela. Atzerriko bankuak ezarrita daude, eta nahiz eta oso txikia izan, gorantz ari da.

Esportatzen eta izaten dituen produktuen artean dauzkagu: gatza, arrainak, otarriak, abereak, tabakoa eta rona.

Irlaren historia

1650. urtean, San Kristobal eta Nieves uharteetatik etorri ziren kolono ingelesen kolonizatu zuten. 1825. urtera arte, Erresuma Batuak administratu zuen, garai horretan nahiz eta hango biztanleek San Kristobalgo eta Nieves uharteko administrazioarekin ezer ez ikusirik nahi, administrazioaren beraren menpean geratu ziren. Ordutik Anguila irla banatzen saiatu zen. 1967ko uztailaren 11an., autonomiari buruzko erreferenduma ospatu zen. Independentistek irabazi zuten eta ekainaren 17an., alde bateko erabakiagatik, bere independentzia aldarrikatu zuen. 1969ko martxoaren 19tik, irailaren 15era arte, tropa britainiarrak kolonia hartu zuen, izan ere, erreferendumean aprobatutako autonomia ez zutenez eman nahi, herriko matxinada sortu zen. Azkenean,



ANGUILA UHARTEA



1971.urtean, komisario britaniarra eta irlako kontseiluak irla gobernatu zuten. 1976.urtean, dependentzia britaniarraren kondizioa lortu zuen (autonomia administratiboarekin), Ronald Webster uharteko kontseiluaren liderrari esker, eta 1980.urtean, formalki banatu zen San Kristobal eta Nievestik. 1992.urtean, CARICOM-eko kide bezala onartua izan zen. 1995.urtean, Luis urakanak izugarriko kalteak egin zion irlari, nekazaritza-sektorean batez ere.

Estatuburua Ingalaterrako Isabel II. Erregina da. Gobernadoreak ordezkatzeko du, baina erreginak aukeratzen du. Gobernu burua Ministro Nagusia da, eta Goberna-

doreak izendatu du Batzordearen gehiengo duen blokearen barruan. Batzordea alde batekoa da, eta hamaika aulki ditu, zazpi herriko botoagatik, ofiziozko bi kide eta Gobernadoreak beste bi botoak aukeratu ditu.



KARIBEKO UHARTEAK

BIRJINA UHARTEAK

Puerto Rico eta Antilla Txikien artean Birjina uharteak daude. Duela 180 milioi urte agertu zen itsaspeko mendikatea besterik ez da. Geologoen ustez, garai horretan itasoaren azpian ziklopeen leherketa bolkanikoak gertatu ziren eta urpean zeuden lurrek milioi urtetan zehar laba botatzen egoten ziren. Pixkanaka pixkanak laba hozten eta gogortzen hasi zen.



Milioi urte pasatu behar izan zuten Murpeko indarrek mendikatea gorantz bultzatu arte, azalean agertzeko. Lehenengo garai honetan irla hauek eta Puerto Ricok pieza bakararra eratu zuten gero lurrikarek eta higadurak Karibeko irlak zatitu zituzten, dauden bezala utzi arte.

Birjina uharteetako artxipelago 6 irla nagusi, irlatxo txiki batzuk eta 342km² ditu. Iparraldean daudenak -Anegada,

Tórtola eta Virgin Gorda- 1762. urtetik jurisdizio britaniarraren menpean daude. Hegoaldean daudenak -Sto. Tomás, St. John eta St. Croix- AEBkoak dira. AEBk Danimarkari irlak erosi zituzten, 25 milioi dolar ordainduz. Izan ere, portu bat behar izan zuen, Panamako Kanala babesteko.

Kolonek Mendebaldeko Indietara joaten bitartean banan banan izena jarri zien irlei. Garai horretako kronikariek



BIRJINA UHARTEAK

idatzi zuten, Kolonek irla hauek ikusi bezain laster bere buruari etorri zitzaizkiola Sta. Ursula-ko 11 birjinen kondaira eta Birjina izendatu zituela.

Birjin uharte britaniarren artean politena Tórtola da, hemen mendiak txiki eta leunak dira -600m-ko altuera-, landarediz estalita eta usapalez beteta, handik datorchio bere izena. Hemen hondartza batzuk aipa daitezke, esate baterako Cane Garden Bay. Birjin uharte britaniarreko irla nagusiak Virgen Gorda eta Anegada dira. Lehenengoaren natura aberatsagoa da eta edertasun berezia du. Nahiz eta errepide ona eduki, oinez egun baten ibil daiteke, bere hondartza liluragarriak ikusteko -The Baths bezala-.

Anegada, koralezko jatorria duen beste irla bat da. Hondartza handiak eta bakartiak, non bakardadea eta lasaitasuna nagusitzen baitira.

50.eko hamarkadan St John irlara -artxi-pelagoko irlarik ederrena- turistek etortzeari ekin zioten. L.Rockefeller-ek 5000 akre erosi zituen Ipar Amerikako gobernuari oparitzeko. Gobernuak ,bere alde-tik, lur gehigarriak erosi zituen eta 1956 ko abuztuaren 2an Birjina uharteetako Parke Nazional ezarri zuen. Gaur 112km² ditu Kostaldeko arrezifeetako 80km² ere babesturik daude. Dударik gabe, Parke Nazionalako gauzarik interesgarrienak direla-.

St. John irla muino berdez estalita dago. 1500 biztanle ditu eta oporretan biztanlearen kopurua gehitzen da. Iparraldean senaia oso politik aurki daitezke -Trunk Bay bezala-Irla hauetako tenperatura 25°C-koa da eta urtaroak ez dira hain desberdinak. Izan ere, hilabeterik hotzenak eta beroen arteko batezbesteko tenperaturak bost gradu ez du gainditzen. Dena den, hemen, periodikoki

hurakan asko agertzen dira. Irailean eta urrian tenperatura gehitzen da eta eurite handiak eta zikloiak agertzen dira. Fenomeno hau gertatu baino lehen lasaitasuna agertzen da eta honek seinale txarrak ekartzen ditu.



Gero jausaldi barometriko handia gertatzen da. Hodei opakak agertu ondoren zaparrada gogorak botatzen dituzte. Hau gertatu bezain laster hurakana hasten da, haize zirkularrez beteta -hauek 200k/h-ko abiadura baino gehiago dute-. Maiz, estadietiek esaten duten bezala, zikloiak agertzen dira. Haietako %88 a abuztu eta urriaren artean gertatzen dira, eta irla hau astintzen dute. Haietariko bat 1989.urtean gertatu zen -Hugo hurakana-.

St. Tomás eta St. Croix

St. Tomás Europa eta Mendebaldeko Indien arteko negozio-zentrotzat puripurian egon zen. Hasieran piratek gordelekutzat hartu zituzten gero puntu neuralgiko bihurtu zen, hasieran, esklabo beltzak lortzeko eta esklabotasuna desagertu zenean Europako luxuzko artikuluekin salerosteko. Egun, St. Tomás lehenengo mailako turismo-helburu bihurtu da. Bere apeuen artean 40 hondartza daude. Haietako bat -Magens Bay- Munduko hamarretatik hondartzarik ederrenetariko bat

da. Hemen istorio eta kondaira asko ibiltzen dira: *"Barba Negra eta Barba Roja"* piratak, ihauterietako jai ospetsuak -apirilean-, bere arrezifeetan arrantza egin eta urpean igeri egin daiteke. Hiriburua Charlotte Amalie da -Danimarkako erregina baten ohoretan-

Espainiarrak St.Croix irlara ailegatu zirenean karibetarrak zeuden, baina ez zegoenez metal bitxirik joan ziren indigenekin arazorik eduki gabe. Eskuz esku, irla espainiarrengandik Ingalaterrako piratentzat izan zen gero frantziarrentzat, zeinek Maltako jaunei erosi zieten. Gero Danimarkako gobernuaren menpean geratu ziren -berriro Frantziako gobernuaren menpean-. Azkenean, pasa zen mendeko hogeitertan AEBaren menpean geratu zen. St.Croix-ek AEBko Urpeko Parke Nazional bakarra du -Buck Island Underwater Trail-, zeinek 354 hektarea ditu eta 50m-ko sakonera arte oso ondo ikusten da. Normalean hemendik pasatzen diren turistak urpekari adituak dira. Hemen dau den bi hiri azpimarra ditzakegu, Iparraldean -Christianssted eta Mendebaldeko kos-




BIRJINA UHARTEAK

taldean -Frederiksted- Lehenengoa 1734.urtean sortu zen eta Monumento Historiko Nazional izendatu zuten, bere alde zaharreko monumentoagatik, bigarrenak ,ordea, estilo viktoriarra du -bere etxeko aurrealde askok XVII.mendekoa dira.

Uharteetako Fauna

Normalean gizakiak edozein irlatara joaten diren bakoitzean faunak eta florak

ondorioak jasaten dituzte, eta irla hauek ez dira salbuespen bat. Kolon agertu zenetik orain arte landaredi autoktonoa eta animalia-espezie mota asko desagertzen ari dira. Honi gaineratu behar diogu animalia exotikoen sartzeari -arratoia bezala. Lehenengo espainiarrek Mundu Berrira bidaiatzen zirenean, beren itsasontzian arratoi asko eraman zituzten, hauek irlak kolonizatu zituzten eta ez zeukatenenez natural-etsairik oso azkarki hedatu eta ugaltu ziren, hango landarediari eta animaliei kalte konponezinak eginez. Beren plantazioetan sortzen zituzten arazoak saihesteko, daniarrek mangosta sartu zituzten 1870.urtean. Haien hiltzeko itzaropena zuten, baina alferrik izan zen. Gainera mangostek animalia autoktonoen bila joan ziren. Izan ere, arratoiak labainkorragoak ziren eta zailagoa zen harrapatzea. Daniarrek ez zekiten harrapakina harrapariaren gainean daukan eraginak ematen dion biomasari zuzenki proportzionala dela eta bere harrapaketak behar duen ahaleginari alderantziz proportzionala dela. Beste animalia batzuk uharte honetako faunan sartu dira: Europako lertxunak, lertauntxu handiak, lertxuntxo itzainak. Haizeak mendearen erdialdean Europako espezie hauek arrastatu zituen eta gaur egun ondo moldaturik daude. Baina uharte hauen benetako altxorra urpean dago, koralezko arrezifeetan, non arrain, krustazeo, molusku eta koral-itsas lore mota asko baitira, harmonian bizi izanez.



ARUBA

Irla bolkaniko txiki hori Venezuelatik 24 km-ra kokaturik dago -Curaçaoko mendebaldera-, azken hamarkadetan lehenengo ordenaren helbide turistiko bihurtu da, batez ere bere ur-kalitateagatik, Palm Beacheko hondartza bezala, zein Karibeko hondartza hoberen artean baitago.



Duela 95 milioi urte baino gehiago Kariben aingiratu, Arubak 32km-ko luzera eta 9 km-ko zabalera (bere alde zabalean) neurtzen du. Iparraldeko eta ekialdeko irla dauden bere harri bolkanikoen higadurak, kresalak, haizeek eta klimaren idortasunak, arrokazko, kaktusezko eta tamaina txikiko arbolazko paisaiak azaltzen dituzte, mendebaldean, berriz, koralezko hareaz egindako hondartzek etengabeko marra eratzen dute. Arubako lehenengo biztanleak Arawak izan ziren. Duela 4500 urte, Venezuelatik etorri ziren. Dirudenez, Arubaren izena Arubae indioetatik dator edo kaiketioen

hitzetatik: "Ora, maskorra, eta ubao (maskorren irla)". Alde honetan mendeetan zehar itsasoak makina bat maskor kostaldeetara bidali zituen.

1449.urtean, Alonso de Ojeda espainiarra, bere kostaldeetara ailegatu zen, bere "txostenari esker", Kristobal Kolonek "irla baldar" izendatu zuen: ez zegoen urrerik, zilarrik, ganadurik, ezta ondasuna ere. Espainiarrek bere populazio guztia Santo Domingora deportatu zuten eta urte batzuk geroago, biztanle zahar batzuekin, hamarreko ahuntz batzuekin, zaldiekin eta behiekin, irla arrantxo bihurtzeko asmoz, itzuli ziren.



ARUBA

Hamarkadetan zehar, Arubaren ekonomia zaldietan, ahuntzetan, Brasilgo egur-ustiapenean, eta Watapanaren zorrotik taninoaren lorpenean zetzan.

1636.urtean holandarrek espainiarrei Arubaren subiranotasuna kendu zieten, eta ahuntz- eta zaldi-uztiapena mantendu zituzten. Mende osoan zehar, kolono zurien eta eskalbu beltzen etorrera saihestu zuten, eta irla ez zuten aintzakotzat hartu, ingelesak kontra jarzeko izan ezik, izan ere ingelesek Curaçaoetik gertuko nabigazioa arriskuan jarri zuten.

1824.urtean, irlako iparraldera, ahuntzain batek urrea aurkitu zuen. Handik aurrera urre-ustiapena garaitu zen (1946. urtera arte, jadanik ez zen errentagarri). Honi gaineratu behar dizkiogu beste aberastasun-iturri batzuk esate baterako: fosfatoak, guanoa, kotxinila eta batez ere aloea -olio sendagarria-, produktu honekin Aruba, Munduko ekoizlerik handiena izatera ailegatu zen. 1924.urtean, irlak 8000 biztanle inguru zituen, petrolio-gordetegi bat kokatu zuen bere kostaldeetan. Gero petrolio-findegia bihurtuko zen eta 8500 langile baino gehiago enplegatu ziren. Honekin, irlaren ekonomia, gizartea eta hizkuntza asaldatu zen.

Bigarren Mundu Gerran zehar, Arubako petrolio-findegia armada estatubatuarren erregairen laurdana ekoiztu zuen eta Mendebaldeko hemisferioan alemanek bota zuten lehenengo torpedoa, Arubako deposituen kontra izan zen.

Pixkanaka-pixkanaka Arubako petrolio-negozioa hedatzen ari zen, baina



1985.urtean petrolio-findegia itxi zuen. Orduan irla beste negozio batean sartu zen: turismoan. Nahiz eta urte batzuk geroago hiriburuko hegoaldera beste petrolio-findegia bat ireki, gaur egungo Arubaren ekonomia turismoan datza (urtero 600.000 turista inguru).

Petrolioaren oinorde bezala, Munduko ur- eta energia elektriko-instalazio handienak ditu (egunero 13.000 litro kubiko ur prozesatzen ditu, eta irlari edateko ur eta energia elektriko nahikoa eta gehiegi eman dizkio).

1986. urtetik, errebindikazio politikaren hiru hamarkada ondoren, irla estatu burujabea da Holandako erresumari lotuta. Bizi-maila altua da eta ia ez dago langabezirik. Hemengo gobernuak legez kontrako inmigrazioaz eta herriko osasun-hobekuntzaz kezkatzen ditu.

Hondartzak eta parkeak

Irlako hondartza onenak mendebaldeko



kostaldean daude, han dauden 28 hotel taldekatzen dira; ekialdeko hondartzak ez dira onak, izan ere oso haizetsuak dira. Hegoaldean, Redgers Beach, Baby Beach edo Boca Grandi daude, (haietatik petrolio-findegia ikus daiteke).

Arikok-eko Parke Nazionalan kaktusen eraketak, eta watapana zuhaitzak ikus daitezke. Zuhaitz hau pinu basatiaren antzeko bat da eta bere enborrak, adarrek eta hostoek haizearen helbidea hartzen dute (mendebaldean). Parke honetan, Museo Arkeologikoa eta Arubianoa daude, non lehenengo populatzaileen hondakinak ikus daitezkeen. Munduko Prezeramika indiar-bilduma bakarra mirets daiteke Aruban, dirudienez Malmoko hilerritik datoz. Hondakin hauetaz gain, Arubako Museoan hobiratze indigenen kutxa-bilduma ikus daiteke (espainiarren etorrera baino lehenago). Arubako azken indiarra 1920.urtean hil zen.

Kontserbatzen den eraikinek zaharrena Zoutman gotorlekua da. 1796.urtean Johan Arnol Zoutman almiranteak eraiki zuen portua babesteko. Gobernuaren, poliziaren eta presondegiaren egoitza izan zen. Orain Museo Arkeologikoa ostatu du. Bere aurrean Willem III.aren dorrea dago, faroa eta irlako lehenengo erloju publikoa

izan zen.

Irlako tontorrik altuena Yamanota da (198m-ko altuera), bere lehiakide bakarra Hooiberg da (lastozko muinoa, 168 m-ko altuera), harri bolkanikoz eginda (harri mota hau Aruban eta Islandian bakarrik aurki daiteke).

Bere faunaren artean iguana daukagu, normalean hondartzetatik gertu dauden mangladietan ikus daitezke. Hotel batzuetan etzaulkien eta turisten artean ibiltzen dira.

Oranjestad eta San Nicolas

Arubako hiriburua Oranjestad da. 1754.urtean lehenengo kolono holandarrek oraingo Savanetako hirian finkatu ziren, han komandantearen etxea zegoen (Irlako autoritate nagusia). Hasieran "Portu Zaldiak" deitu zuten, gero "Hondartzak", 1824.urtean Curaçaoko gobernadorearen inziatibagatik, eta metropoli-ri kasu, Orangeko Errege-Etxea edo Orangestad deitu zuten.

Irlako bigarren hiria, San Nikolas da. Bere izena Nikolas van der Biest-enganetik dator. 1979.urtean Nikolasen etxaldekoko lurzoruetan fosfato-ustiapen batekin hasi zen, eta bere inguruan hiria eratu zen. anetako hirian finkatu.





KARIBEKO UHARTEAK

Haizebeko uharteak

CURAÇAO

Karibe itsasoko hegoaldera kokatuta dago, Venezuelako mendebaldeko kostaldetik 50 km-ra. Holandako Antilletako uharterik handiena eta populatuena da Curaçao. Berak 442 km² ditu. Haizebetako uharteetako da, Aruba eta Bonairekin.



Portugaldarrek irla horri izena jarri zioten. Hara joan zirenean konturatu ziren, eskorbutua pairatzen zuten marinela, lehorreratzean, sendatzen zirela (segurki fruta asko jaten zituztelako). Hau dela kausa "Ilha da Curaçao"aren izena jarri zioten (Zainketaren irla). Holandarrek konkistatu ondoren, behin betirako izen horrekin geratuko zen: Curaçao.

Karibe uharte gehienak bezala, Curaçao Tropikoen arteko aldean dago eta ipar-

ekialdetik hego-ekialdera lerrokatua dago, hau dela kausa, iparraldeko kostaldeak, haizealdekoak dira, izan ere, alisioen efektuak zuzenean jasotzen dituzte. Hegoaldeko kostaldeak, oster, haizebekoak dira, izan ere, haizeen ahoz-gora daude, eta ondorioz, itsasoa beti barean dago.

Iparaldeko kostaldeko higadura-ekintza irudiak alisioen efektuak erakusten ditu. Nahiz eta haize oso gogorrak izan ez, urte osoan zehar ibiltzen dira, baina arratsalde-



koak gogorragoak dira. Olatu horrek Iparaldeko kostaldeko kareharrizko plataforman sartzen da, horregatik kobazuloak, zubi naturalak, eta haran txikiak (eraitsitako kobazulo zaharretako teilatuz eragindak) ireki dira.

Klima erdilehorra

Irla honetako klima erdilehorrekoa da, eta bere tontorrik altuena Kristobal mendia da (Christoffelberg). Honek 374 m-ko altuera du eta ipar-ekiadean kokatuta dago.

Irlako hiriburua eta batera Holandako Antilla guztietako porturik nagusia Willemstad da.

UNESCOK (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea-k) irla honetako alde historikoa, hirigunea eta portua, Gizon-emakume guztien ondarea deklaratu zuen 1997an.

Willemstad Mikvé Israel-Emanuelen sinagoga dago, Amerikako kontinenteko sinagogarik zaharrena da. 1651.urtetik etengabe funtzionatuz.

Curaçaoako populazioak hainbat jatorri ditu. 173.400 biztanle inguru ditu. Gehienak Afri-

kako mendebaldeetako herrietatik datoz, baita Karibe itsasoko ondoko uharteetako herri afrokaribetarretatik ere. Gero, irlan dauden kanpotarretako kolonia nagusietako ondorengoak edo hirritarrak daude. Hauek Dominikar Errepublikatik, Kolonbiatik, Venezuelatik, Portugaletik, Haititik, Jamaikatik, Surinametik, Indiatik eta Txinatik (besteak beste) datoz.

Irlako gertaerarik ospetsuenetariko bat inauterrien ospakizuna da. Curaçaoako likorea egiten da, ospatzeko (laranja-azalen bidez egiten dute, eta uharte honetan laranja asko daude).

Hizkuntzak

Hizkuntza ofiziala nederlandera da, eta populazioaren %10en hizkuntza-ama da. Dena den, populazioaren %80k papiamento-hizkuntza erabiltzen du, honek Karibe itsasoko kreola familiakoa da, eta Europa-ko eta Afrikako hizkuntzen nahasketa du ezaugarri.

Jendeak erabiltzen dituen beste hizkuntza batzuk ingelesa eta gaztelania dira.

Curaçao, Holandako Antilletako lurralde



CURAÇAO

irlatarra denez, Europako Batasunaren Itsasoz Bestaldeko Nazioen eta Lurraldeen parte eratzen du. Curaçao, Karibe itsasoko Herbehereetako Errege-Itsas Armadaren ontzi-intalazio nagusiak finkatzen dira eta eskualde honetako NATOren kideei euskarri logistikoa ematen die.

Gainera, 1999. urtetik berre lurraldean AEBetako Hego Komandoaren Aitzindari-Operazioen Basea funtzionatzen ari da, narkotrafikoaren kontra borrokatzeko.

Uhartearen historia. Europako esploratzaileen etorria

Erregistro historikoen eta arkeologikoen arabera, irlako lehenengo biztanleak Kaketio-tribuak ziren, hauek Arawa familiakoa izan ziren.

Europako lehenengo populatzaileen etorria 1499an gertatu zen. Alonso de Ojedak espedizio espainiar bat agindu zuenean, Hego Amerikako iparraldeko kostaldea aurkitu zuen. Gertaera hori bere

lehenengo espedizioan gertatu zen. Berarekin, Juan de la Cosa eta Américo Vespuccio zeuden. Azken honek *“Erraldoien uhartea”* deitzen zion, izan ere, uharteko biztanleak oso altuak ziren.

XVI. mende osoan zehar, nagusitasun espainiarra egon zen. Garai honetan jatorrizko biztanle guztiak La Española uharteko koloniar eramandak izan ziren (gaur egungo Haiti eta Dominikar Errepublikak). Curaçaok Ipar Amerikako lurraldeetako esploraziorako eta konkista espainiarra egiteko balio zuen, baina kontinentearen kolonizazioa aurrerantz joan zen neurrian, pixkanaka-pixkanaka utzita izan zen.

Irlako lehenengo kokapen holandarrak 1634. urtekoa dira. Hara joan ziren egurra eta gatza bilatzera. Urte batzuk geroago, 1634. urtean, Mendebaldeko Indietako Holandako Konpainiaren espedizio batek irla erreklamatu zuen Herbehereentzat (Johan van Walbeeckek zuzendu zuen).

Holandako kolonoen etorrera

XVII. mendean Erdian, Iberiar Penintsulatik Holandako kolonoak eta judu-gaztelaniak etorri ziren, handik kanporatuak izan ziren lehenengo Portugalera, gero Holandara eta azkenik, Brasilgo ipar-ekialdera, nondik, XVIII. mendean lehenengo erdialdian

Curaçao ezarri ziren sefardi gehienak etorri baitziren.

Judu-sefardiaren jatorri honek, hitz portugaldarren existentzia azaltzen du, baita judu-hilerrietan dauden deitura sefardi hispano-portugaldarrak ere, eta batez ere, papiamentoaren fonetikan, portugaldarren antzekoa, eta hau ulertezina da Karibearen, izan ere, hemen ez dago Portugalgo koloniarik.

Populatuak berriekin, zitrikogintza egiteko teknikak eta gatzagatuak hobetu ziren.

1642. urtean, Peter Stuyvesanti, gobernatzaile izendatu zuten. Berarekin irla merkataritzagune nagusi bihurtu zen, baita Europako kolonietzat esklabo-merkataritzan nagusienetarikoa ere.

Ingelesek bi aldiz uhartea hartu zuten, 1800. urtetik 1803. urtera arte, eta 1807. urtetik 1816. urtera arte, Gerra Napoleonikoek biak motibatu zituzten. La alde berekoki, Hego Amerikako kolonia hispaniarren mugimendu independentistak sortu ziren, hemen Simón Bolívarri, Manuel Piarri -Guyanako probintziaren askatzailea- eta Luis Brionari babesa eman zien. Azken hau Kolonbiako errepublika almirantea izan

tera ailegatuko zen.

1863. urterako esklabotasuna deseuztatu izan zen Herbehereetako kolonietan, haieran Curaçao ere sartu zen, eta honek krisialdi ekonomiko larri batera eraman zuen. Bigarren Mundu Gerraren zehar, Curaçao AEBetako base militarrek finkatu ziren, izan ere, irla hori erregai-iturri nagusienetarikoa zen, irlan egiten zituzten Aliatuen operazioetarako.

Ondorioz, Alemania Naziren itsaspekoek askotan hango portua setiatu zuten.

1963ko maiatxaren 30ean, herriko jaikial-



CURAÇAO



diak gertatu ziren irlan, alde batetik, petrolio- industriaren mundu krisialdiagatik, eta bestetik, bere industria nagusiarren bazterteagatik. Jakialdi hauek beren une gorena eduki zuten 1969an, noiz jendetza bortitzek Willemstadteko hirigunerik garrantzitsuenean merkataritza asko erre egin baitzizituzten, honengatik guztiagatik galera ekonomikoak oso handiak dira, zer esanik ez!

XX.mendearen amaierarako eta XXI.mendearen hasierarako biztanleei kontsulta batzuk egin zizkieten irlako geroko estatus politiko-administratiboa erabakitzeke. Azkeneko kontsulatan, Holandako Antilletatik banaketa egitea erabaki zen eta irlarako autonomiaren estatusaren bilaketa (Herbehereetako erreinuaren barruan).

Petrolioaren finketan datzan ekonomia

Willemstadteko portua, badia naturalaren inguruan kokatua, irlako hego-mende-

baldean, bere ekonomiaren zati nagusia da. Handik Panamako Kanalako ibialdi turistiko nagusienetarikoa bat dabil. Hantxe petrolio-findegia dago eta ontziolak, Panamax motako ontziak egiteko, baita eskualdeko dike lehorrik handiena ere; honi gaineratu behar diogu kontaineraldaketa gune garrantzitsua dagoela eta bere alde frankoa.

Curaçaoako industriarik nagusia petrolioaren finketa da, Venezuelatik, gordintzuraz, inportatua dela. Hantxe Karibeko hirugarren petrolio-findegia nagusia dago, "Irla" deituta, PDVSA-k (Venezuelako findegia estatala-k) administratzen du. Bere eguneroko produkzioa oso handia da: 320.000 petrolio-barril. Bere ekonomiaren beste zutabe batzuk ere dira, besteak beste, zerbitzu-sektorea eta banka, izan ere, populazioaren portzentaje handi bati lana ematen diote. Turismoa, 80ko hamarkadaren krisialdia ondoren, pixkanaka-pixkanaka berreskuratu da; eta frogatzeko esan daiteke, urtero 220.000 turista inguru joaten direla.



KARIBEKO UHARTEAK

BONAIRE

Herbehereetako Antillatik bigarren irla da tamainagatik, -Curaçao ondoren-, izan ere, irla horrek 287,5 km² ditu. Karibe itsasoko hegoaldean kokatuta dago, Venezuelako mendebaldeko kostaldearen aurrean, eta Haizebeko uharte-taldekoa da (Antilla Txikiak), Aruba eta Curaçao uharteekin.



Herbehereetako Antilletako irlako lurraldea da Bonaire uharte, batera Herbehereetako erreinukoak, eta Europako Elkartearen itsasoz bestealdekoak, eta naziokoak dira.

Kralendijk hiriburua da, eta irlako erdialde-mendebaldeko kostaldean dago. 2005ean, bere populazioa 10.635 biztanle ingurukoa zen, gehienak mulatoak dira, europarraren eta afrikarraren arteko mestizajetik etorriak. Dena den, esan daiteke bere populazioaren zati handi batek hainbat jatorri dituela, esate baterako, Herbehereak, Dominikar Errepublikak, Venezuela, Kolonia, Surinam, eta AEB.

Bere klima erdi-idor tropikalekoa da, eta bere iparraldean mendi batzuk ikus daitezke, handiena Brandaris mendia da -240m-ko altitudera-, hegoaldea, berriz, lau da.

Bidexkek eta bideek zeharkatzen dute irla. Barrualdean, ur-gaziko lakuak daude. Ederrenetarikoa bat Goto lakua da, hantxe 20.000 flamenko inguru bizi dira. Bonaireko mendebaldean, kostatik gertu, Klein Bonaire irla txikia dago, jende gabekoa eta hondartzaz eta koralezko arrezifaz inguratuta, itsaso bare batean, izan ere, mendebaldeko kostaldea haizeetatik babestuta dago. Bere kostaldeko kobetan, itsas dortokak babesten dira.



BONAIRE

Urpeko bizitzaren eztanda

Irlaren edertasun nagusia bere ur azpian dago, inguratzen zaizkion koralezko arrezifeetan. Han urpekariak flora eta fauna asko aurkitzen ditu, zientzia-fikziozko herrialdea dirudi. Bere ur gardenek izugarritzko ikuspena dute -30m arte-, eta hantxe arrain mota asko ikus daitezke, esate baterako, mero zuriak, pargoak, aingeru-, pailaso-, damatxo-, tronpeta-, zirujau-arrainak, barrakudak, ganba garbitzailleak, otarrainak ... Leku aproposa bisita egiteko Bengue hodartza edo Karpata da.

Arrezife handi batek irla inguratzen du

Oso koralezko arrezife handi batek irla osoa -287,5 km²- inguratzen du. Hara joateko, bakarrik urpean igeri egin behar du guzuz. Badaude alde asko

urpean igeri egiteko -irla nagusian 60 leku eta Klein Bonaire uhartean beste 26 leku gehiago. Alde hauek markaturik daude: horiz margotutako bideko harriak. Hauen izenak bitxiak dira, adibidez 1000 Steps (Mila pausu), Alice in Wonderland (Alizia Mirarien herrialdean), Country Garden (Herri-lorategia), eta Sweet Dreams (Amets onak).

Duela 30 urte baino gehiago, arpoi-arrantza debekatu zuen Karibeko lehenengo irla izan zen Bonaire, geroago bere uretan koral-uztiapena debekatu zuen.

Bonaire Marine Parke -1979.urtean egindako parkea-, irlako ur eta urpeko ondare guztiak babesten ditu.

Kostaldekotik aldetik at bakarrik arrantza onartuta dago, eta espezie batzuk daude, haien artean lupia (*Dicentrarchus labrax*).

Gehien praktikatzen diren kirolen artean windsurfa eta arrantza dauzkagu.

Irlaren historia

1499.urtean espainiarrek Bonaire aurkitu zuten, Alonso de Ojedak eta Américo Vespucciok ezpedioa zuzendu zuten.

Aurkitua izan ondoren bizi zen herriak -Arawak- "Bojnay" a edo "Lur beheak" esaten zizkion. Lur hauetan ere Kaiketi-tribua zegoen. Espainiarren arabera, Harri Aroan bizi zirela ematen zuen eta buztinezko etxola miserableetan bizi izanez.

Espainiako kolonizazioaren partez, indiarrek esklabo bihurtu ziren eta 1515.urtean La Española uharteko kobre-meatzetara bidali zituzten, gaur egun irla honek

Haiti eta Dominikar Errepublikak osatzen ditu.

Bonaireko populazio indigenaren aztarnak gaur egungo biztanleetan ikus daitezke. Izatez, populazio gehiena mulata da, europar gutxiarekin (holandarretatik ondorengoak) eta afrikarrak (esklaboetatik ondorengoak).

Holandarrek espainiarrei Curaçao kendu zieten 1634an, izan ere, ontzibasea behar zuten haien kontra borrokatzeko. 1636.urtean holandarrek Bonaire eta Aruba hartu zuten eta kolonia holandar bihurtu ziren.

Mendebaldeko Indietako Konpainia Holandarrak 1639.urtean gatz-ekoizpena hasi zuen, hori gehi irlako urpeko turismoa alde garrantzitsua da irlako ekonomian.

1800.urteetik eta urte batzuetan zehar, pirata frantziarrek eta ingelesek irla kontrolatu zuten. Holandarrek kontrola berreskuratu zuten 1816an.

Herbehereetako Antillak, Bonairekin, Herbehereetako lurralde autonomo bihurtu ziren 1954an, une horretan, herri horrek beren errekurtsioen garapena bermatu zuten, diru-laguntzen bidez. 1896ko urtarilean, Herbehereetako lurraldea izatera pasatu zen, oraintxe Herbehereak, Herbehereetako Antillak (Bonaire,



Curaçao, Saba, Saint Eustatius eta San Marteen) eta Aruba osatzen dituela.

Gertaera honek uzten du, turismoaren eta beste baliabide ekonomiko batzuen garapena Herbehereetako Antilletako eskuetan geratzen direla, eta defentsa eta kanpo-erazoak, oster, Herbehereetan.

Azken erreferendumaren ondorioen arabera, Bonairek eta beste Antilla holandarrek lurraldeko organizazio mota hau 2008ko abenduaren 15a deseuztatuko dute, une horretan Bonaire, Saba eta Saint Eustatius Herbehereetako izatera pasatuko dira eta Curaçao, eta Saint Marteengo alde holandarra, berriz, Arubaren mailaren antzekoa edukitzera pasatuko dira.





KARIBEKO UHARTEAK

HARKAITZETAKO ARTXIPELAGOA

Venezuelako erdialdeko kostaldean, La Guairako portutik 84 miliara (166 km inguru) Karibe itsasoak bainatzen duen irla-talde bat ikus daiteke: Harkaitzetako artxipelagoa. Laku honetan paisaiaren edertasuna ez ezik, garrantzia ekologikoa ere aipa daiteke, izan ere, Hego-Amerikako koralezko arrezife garrantzitsuenetariko bat da. 1972ko abuztuaren 2a Parke Nazionala egin zuten. Bere aberastasun nagusiari hitz egiten badugu, bere itsasoko baliabide naturalak aipatu behar ditugu.

Kristobal Kolonek, bere hirugarren bidaian -La Españolara itzultzen zenean- irla hauek aurkitu zituen. Artxipelagoko erdialdean laukizuzen bat eratzen du, eta handik sakonera txikiko urmaela ateratzen da, 400 km² inguru ditu, Koraletako hondarpea esaten diote. Bere inguruan 42 irla eta irla zingiratsuak daude, gainera 250 hondarbanku baino gehiago eta arrezifeak daude

Bere ekialdeko tontorrean, koral-hesi bat nabarmentzen da -Harkaitzetako toki nagusia-, arku-formakoa du, iparraldetik hegoaldera orientatua dago eta bere luzera 24 kilometrokoa da. Hesiko mendebaldera, eta handik banatuta kanal nabigagarriagatik, artxipelagoko irlarik handiena dago: Irla zingiratsu Handia. Ilargierdi-formakoa du. Bere mendebaldeko tontorra luzatzen da, hare-mihi estu bat izango

balitz bezala, Boca de Coteko puntan amaitzen da.

Artxipelagoko irlarik nagusia, Harkaitz Handiaren Irla da, ez da handiena, baina merkataritza- eta administrazio-gunea da, gainera, besteek baino populazioaren kopurua handiagoa du. Populazio gehienak arrantza egiten du. Irla hau ipar-mendebaldean kokatua dago eta triangulu



angelozuzen-itxura du. Irla honetan mendikate txiki bat nabarmentzen da (2 km), Hauek iparraldeko kostaldean zehar ibiltzen dira eta oso urrunetik ikus daiteke, izan ere, artxipelagoan ez dago beste goragunerik.

Harkaitzetan irla zingiratsu mota asko ikus daitezke. Ugarienak kaskamotzak dira, izan ere, ez dute landaretzarik eta ez dira oso egonkorrak., beste batzuk oso txikiak dira, zuhaixkak eta gramineoak bakarrik dituzte, eta oso handiak ere badaude, batzuek beren barrualdean urmael batzuk dituzte eta beren ertzeak mangladiz beteta daude.

Parke Nazional honetako ekialdeko koral-hesia baita arrezifeetako orban handiak ere, koral mota askogatik eraturik daude, esate baterako, orein-korala (*Acropora cerviconis*), kolonia handiak eratzen duena; altze-korala (*Acropora palmata*), bere adarkadurek palmondo-

itxura dute; *Acropora prolifera*, bitarteko forma da, izar mendikatsua (*Montastrea annularis*) koralezko arrezifeen eraketa handienak egiten dituela (bai altueran bai zabaleran), edo burmuin-korala (*Diploria labyrinthiformis*) giza-burmuinen zirkunboluzio-itxura duela. Beste koral batzuek arrezife hauek eratzen dituzte, haien gainean animalia eta landare asko ikus daitezke: algak, itsas belokiak, alzionarioak, gorgoniak, krustazeoak, ekinodermatuak... Aparteko arrain askok bere elikadura ez ezik, babesa ere aurkitzen dituzte bere harrapariengandik ihes egiteko. Haien artean nabarmentzen da batez ere, katxama beltza (*Pomacanthus paru*), bere hori-koloreko orbanekin, hondo beltzaren gainean, tximeleta-arrain ildaskatua (*Chaetodon striatus*), berde argi-kolorekoa da, Katxama zuria (*Pomacanthus arcuatus*), helduak grisaxkak dira baina gazteek, berriz, katxama



HARKAITZETAKO ARTXIPELAGOA

beltzen antza dute, eraztun horiekin edo katxama erdi-dolua (H. hiru kolorekoa).

Itasoko baliabideak

Koralezko arrezifeetako espezie tipikoak gain, Harkaitzetako lurralde-uretan arrain-espezie asko bizi dira, haietarikoz batzuek garrantzi ekonomiko handia dute eta hango biztanleek arrantza egiten dutte. Haien artean nabarmentzen dira: Karibea (*S. maculatus*), biktimen atzetik joaten den arrain haragijalea da, mero-espezie asko: txernameroa (*Epinephelus morio*), mastazirimeroa (*Mycteropera roquensis*) eta mulatoa (*Cephalopholis fulvus*). Mero hauek haragijaleak dira eta ur hauetan 25 kg-ko pisura ailega daitezke. Itsasoko hondoan eta koralezko leku harritsuetan -konpainiarik gabe- bizi dira. Hemengo espezierik ugariena hortzak



dituen pargoa da (*Lutjanus griseus*), sakonera txikiko uretan, koraleen artean, taldeak eratzten dituen batzuetan oso handiak.

Barrakuda (*Sphyraena barracuda*) espezie bakartia eta jatuna da. Uretako gainazalean igeri egiten du eta asko hurbiltzen da ertzetara. Batzuetan mangladietako kanaletatik eta albuferetatik sartzen da, arrain txikien bila. Hango arrantzaleek sinesmen bitxi bat dute: maiatzean barrakudak jaten bada, izugarrizko intoxikazioak pairatzen behar da, batez ere artxipelagoko mendebaldeko barrakudak. Dirudieenez, garai horretan barrakudek sardina "manzanillera" delakoak jaten dituzte, sardina horrek bere dietan alga berezia jaten du: zorri-lohia edo "manzanillo" delakoa, gizonarentzak toxikoa dela.

Sardetan, kostaldeetako hondo hareatsuetan, txitxarroak (*Caranx hippos*) arrain txikien bila ikus daitezke. Tarponak (*Tarpon atlanticus*) 25-35 kg artean pesa ditzakete, atxipelagoen arteko sakonera handiko uretan bizi dira, baita iparraldeko harkaitzen oinaldean ere. Mubleak (*Mugil curema*) albufereetako sarda txikietan sartzen dira, baita mangladieta-



ko urmael zabaletan ere. Sargoak, -taldeka bizi direnak- ere (*E. plumieri*) oso ugariak dira mangladietan. Dena den, nahiz eta artxipelagoko arrain-hazkuntzaren ondasuna oso handia izan, merkataritza-espezie nagusiak dira, bolutoa (*Strombus gigas*) -molusku jangarria- eta otarrainak batez ere, haietatik *Panulirus* generokoa hiru espezie daude. Artxipelago honen otarrain-ekoizpenak Venezuelako behartasunen %60 bete ditu. Dirudieenez, itsas bizitzako ondasun bikain hau hegoaldeko laster ekuatorialagatik sortzen da, horrek plakton asko dakar eta beraren kopuru handia artxipelagoko ur hauetan geratzen da, Venezuelako kostaldean aurrean dauden ur-masa handiko igorakadagatik, honi guztiei -teknikoki- "larrialdi-fenomenoa" esaten diote.

Artxipelagoan ere algazko larre handiak daude -dortoken larrea (*T. testudinum*) esaten diote. Hemen babesa eta janaria lortu izan ezik, itsas kelonio handiak jateko ordua ere biltzen dira. Algazko larre hauetara hiru espezie-dortoka jatera joan ohi dira: Dortoka berdea (*Ch. mydas*) ugariena da, Karey-dortoka (*E. imbrica-*

ta) orojalea denez, bai algak bai moluskuak edo arrainak jaten ditu, eta astalar-dortoka (*C. caretta*) ez dago hainbeste ale, eta ur lasaietan aurki daiteke.

Basamortu bat itsasoan

Artxipelagoko klima estepariora da. Aparteko idortasuna du baina noizbehinkako zaparradagatik eta euri-denboraldiagatik (irailetik urtarrilara arte) apurtuta. Urteko batez besteko tenperatura 28°C-koa izan ohi da. Haizeak hezetasun handia du baina ez du lainorik egiten. Horregatik ez dago irlarik edo irla zingiratzurik non aldizkako lasterrak edo urpeko metaketa baitaude, aprobeztatzeko.

Artxipelagoko landaretza, mengladietan ez ezik, sabanetan eta elordietan ere datza. Irltetako eta irla zingitatsuetako alde leunean eta hareatsuan sabana dago, hantxe halofila-espezieak hazten dira (lurreko gatzetara moldaturik). *Sporobolus virginicus* gramineoa nabarmentzen da, honek errizomaren sare trinkoa du harean finkatzeko; "arrantzalearen tabakoa" (*T. gnaphalodes*) zurtoin eta hosto leunak ditu, zilar-grisa kolorekoa.



HARKAITZETAKO ARTXIPELAGOA

Irla hauetako arrantzaleek ukendutzat erabiltzen dituzte. “*Tabaquillo*” delakoa (*Batis maritima*), bere hostoak egosi hondoren, arrainen hozkaden eta ebakiduren kontra erabiltzen dituzte. Beirazko landarea (*S. portulacastrum*), gramineo harrestari bat, zeinek zurtoinetako adarrak tente baitituzte, oso ugaria da hondartzetan.

Harkaitz Handiko muinoetan eta alde idor eta harritsueta elordia hezten da Hiru mota daude: “*Tuna*” delakoa (*O. wentiana*), papoa (*M. caesius*) eta

astalarra (*L. griseus*).

Ez dago basoko ugaztunik, narrasti gutxi bakarrik aurki daitezke. Haien artean iguana eta musker beltza (*C. lemniscatus*) dauzkagu. Musker beltza intsektujalea da baina bere elikaduraren oinarria handiagotu behar du, horretarako tunetako eta papoetako loreak jan behar izan ditu baita itsas hegazti batzuen arrautzak ere. Hiru musker intsektujalek fauna motako hau betetzen dute: matxuritea (*G. vittatus*), mea-mea delakoa (*G. antellensis*) eta gakoa (*P. rutteni*).

Xerofilo ingurune honetan bizi diren itsas-hegaztiak gutxi dira, haien artean endemismo berezi batzuk ikus daitezke, esate baterako, erre-gina txikia (*C. lowii*)-bikoteka edo familietan bizi den paseriforme txikia da; mangladietan bizi den Mangleko kanarioa (*D. obscura*), bere xaramelak eta txorrotxioak oso deigarriak dira. Honekin jarraituz, uharte hauetan grisaxka-koloreko usapala (*C. passerina*), errubi-koloreko kolibria (*C. mosquitus*) eta pitirre grisa (*Tyrannus dominicensis*) bizi dira.



KARIBEKO UHARTEAK

HEGAZTIEN ARTXIPELAGOA

Hegaztien artxipelagoa, Venezuelako Errepublikako Bolívariarrekoa da. 3,35 km² ditu. Venezuelako Sail Federaltzat administraturik dago.

Bonaire uhartera (mendebaldera)

eta Harkaitz Handien (ekiladera) artean dago, eta Aragua eta Caraboboko iparraldera. Gaur egun, jenderik gabeko artxipelago hauek arrantzarako garrantzia dute.

Bi arrezifek Hegaztien artxipelagoa eratzen dute. Arrezife bakoitzean 13 irla zingiratsu daude. Haizealdeko uharterko hegaztiak deitzen dena, 8 km-ko diametroaren arrezifea da eta hego-mendebaldean hiru irla zingiratsu ditu. Haizebeteko uharterko hegaztiak deitzen denak, mendebadeko taldea, irla txiki bat edo irla zingiratsua du,



mangladi batekin, hegoaldean.

Artxipelago horrek ez du ezer ikusirik Hegaztien uhartearekin, Venezuelako kostaldeetatik oso urrun daudela.

ORTXILA UHARTEA

Karibe Itsasoan dago. Venezuelako Errepublikako Bolívariarrekoa da eta beraz, Venezuelako Sail Federalean sartuta. 40 km² ditu eta Caracastik 180 km-ra dago (Venezuelako hiriburua).

Ortxila kanpamentu militar baten egoitza da, hara Presidentea eta gobernuaren goimailako ofizialak bakarrik joan daitezke. Baimen militarra eskatu behar da turismoa egiteko. Antzinean 100 biztanle egon ziren baina Markos Pérez Jiménez jeneralaren gobernuan zehar irtenaraziak izan ziren.

DORTOKAREN UHARTEA

Dortokaren uhartera Venezuelako Errepublikako Bolívariarrekoa da eta beraz, Venezuelako Sail Federalean sartuta.





MARGARITA UHARTEA

Venezuelako Karibeko kostalde beroen aurrean finkatua, Venezuelako kostaldeko ipar-ekialdeko 30 km-ra inguru dago, Margarita uhartea. 1498ko abuztuaren 15 a, Kristobal Kolonek aurkitu zuen. Urteko batez besteko tenperatura 27°C-koa da. Bere urak gardenak dira. Irlak 390.000 biztanle inguru ditu, haietatik 200.000 biztanle hirian bizi dira -La Asunción-. Margarita uharteak urtaro lehor bat eta beste bat euritsua bakarrik ditu, baina batzuetan ezta hori ere, izan ere, sorgindutako lur magiko honetan denetik dago: itsasoa, haizea, eguzkia, mendiak, urmaelak, alde idorrek eta loreak. Hauek mendietako bazter bakoitza apaintzen dute.



Nahiz eta Margarita uhartea beste irlak bezain hostotsua izan ez -St Vicent eta Granadinak bezala-. Altitudearen arabera bere landaredia aldatzen da, horrela, zuhaitz txikiak, enbor argalekin aurki daitezke, baita baso hezeak zuhaitz handiekin, orkidea asko, landare-igokaria, iratzeak eta bromeliazeak ere. Munduko alde ederrenetariko bat da, bere lasaitasunagatik, ur gardenagatik, eta bere jendeagatik. Irla honi "Karibeko Perla" esaten zaio. Laku honetan emakumeak politikan, kiroletan, kulturen, heziketan eta enpresan nabarmentzen dira. Bizitzaren ikuspegi guztietan emakumeen eskua ikus daiteke. Aruba irlatik hona 11 ordu emanaz ailega daiteke, horretarako ontzia Guamatxe portuan porturatzen da, handik Porlamarrera 45 minutu eman behar da. Hondartzak gustatzen zaienei irla honek alternatiba asko eskaintzen dizkie: Irlako iparraldean Uraren hondartza dago, gero Parguito, Karibe edo Kotxe hondartza daude, azkenera joateko, Karibeko portuko hondartzatik joan daiteke -Conferry conpainiarekin, 3 eurogatik joan-etorriko txartela. Margaritako hego-ekialdean irlako alderik populatu-



na dago. Han Porlamar dago Margaritako marinel- eta merkataritza-hiria, leku hau berezia da toki-idiosinkrasia ezagutzeko. Hiriguneko dendak bi alboetan daude. Portu frankoa denez, merkataritza-aukera interesgarriak eskaintzen ditu. Ikustekoa da, San Nicolás de Bari-ko eliza, Puntillako faroa, Santiago Mariño etorbidea, "Conejeros" merkataritza, Gómez eta Guevara bulebarrak, Porlamarreko badia, eta Maskor Handiaren hondartza. Porlamarretik gertu, Guakukoko hondartza -ospetsua da Guakuko txirlagatik- eta Panpatar herria daude. Hantxe San Carlos Borromeoren Gaztelua dago, Karankako gortorlekua eta Bidai onaren Kristoren eliza daude.

La Asunción

Irlako erdialdean hiriburu politikoa dago, hemen legatu arkitektonikorik garrantzitsuena dago -Asuncionen hiria-. Han derrigorrez bisitatu behar da: Asuncion Ama Virjinaren eliza, Jauregi Legegilea, eta Santa Rosaren gaztelua. Pedro Gonzalez Cervantes de Albornoz kapi-

tainak fundatu zuen 1565.urtean eta gotortu zuten piraten kontra egiteko. Dena den, piratek herria hartu zuten. 1648.urtean 200 biztanle baino gehiago hil ziren izurriteagatik. Bolivar enparantzan, Asuncion Ama Virjinaren katedrala dago. Eliza horren eraiketa 1570.urtean hasi zen. Venezuelatik zaharrenetariko bat da. 1599.urtean kanpadorra bokatua izan zen eta 1621.urtean nabea. 1621.urtean kontsakrazioa izan zen. Handik aurrera ez dute aldaketa garrantzitsurik egin. Geure Asuncion Ama Virjina zaindaria



MARGARITA UHARTEA



da, bere jaiak abuztuaren 15ean ospatzen dira.

Porlamarretik 15 km-ra Haraneko Virjinaren Santutegia dago, hau da eromesaldiaren punturik nagusia. Eraikuntza dotorea da eta txokolate-kolorea du. Espainiatik ekarrita izan zen birjina urakanetik atera zen eta mirari batzuk berea zirela esaten da.

Margarita uhaldeko iparraldean ez dago hainbeste jende. Han hondartza gardenak daude eta Juangriego herri arrantzalea eta

La Galerako gotorlekua. Margaritak ondare arkitektonikoa izan ezik, toki natural aldakorra ere ditu.

Hondarpeko Parke Naturala

Bere mendebaldekoan, Hondarpeko Parke Naturala dago (10.700 hektarea). Mangladiz eratuta, hondarpe batek itsasotik banatzen du. Barra hori, Makanaoko penintsula eta irlako mendebaldearen arteko lotura-

puntua da. Sakonera txikioa da. Parke honetan hegazti mota asko ikus daitezke, esate baterako, lertxunak, lertxun handiak, edo eskarlata-koloreko ibisa. Bere kanal ederrek, beren izen deigarriekin, haize magikoa txalupako bidaiari ematen diote. Hondarpetik urrunago, Makanaoko penintsula dago, oso idorra, lasaia eta herriko kaktusaz beteta, agian, irlako hondartzatik lasaienak eta birjinenak hemen daude. Beste hondartza batzuk dira: Auyamako hondartzak, Hormaren tontorrekoak, Hareak Tontorrako hondartza, edo Jankekoa (windsurfa egiteko aproposa). Beste alde interesgarri batzuk dira: Maritesko urmaela, Kopey-ko gunea (mendilerroa), Matasieteko mendixka, Marrako urmaelak, Harriaren tontorra, Maria Guevararen titiak (bi mendixka berbera, 130m-koak), Tuboresko udalerrian dago eta emakume ospetsu horren ohoretan izena jarri zioten mendixkari.

Takariguako nekazaritza-herria

Antzinatik, Takariguan nekazaritza-lanak egiten ziren, baina azken urteotan, urik eta euririk eza kalte egiten dio herriari. Hango lurrian denetik sortzen da, edozein ale haizera bota, eta pixka ur batekin bera eta beste basoko ale batzuk haziko dira (txinbonboa eta basoko luzokerra espontaneoki sorrarazten dira).

Irlaren historia

Irlako lehengo biztanleak Guaikeriak izan ziren eta Margarita ordez Paragatxoa deitu zioten, hitz horrek arrantzaren ugartasuna esan nahi du. Kristobal Kolonek 1498ko abuztuaren 15an irla ikusi nuen, Carlos V.ak Marcelo Villalobos lizentziatari kapitulazio baten bidez eman zion, 1525ko martxoaren 18a. 1817ko maiatzaren 12tik aurrera Esparta Berria deitu zio-

ten, José Cortés de Madariaga presbiteroagatik (Venezuelako mugimendu independentistako persona ospetsua). Panpatarren zegoen Botere Betearazleak ofizialitu zuen eta Margaritaren izena jarri zion.

Garai kolonialean zehar, piratek eraso asko egin zituzten (1565. urtetik 1595. urtera 14 eraso) eta hau zela kausa gotortu zuten. 7 Gotorleku eraikitatik bi bakarrik geratzen dira: San Carlos de Borromeoren Gaztelua (Panpatarren) eta Sta Rosaren Gaztelua (hiriburuan), honi gaineratu behar diogu, La Karantako gotorlekuak (Pampatarrak), La Galera (Juan griegon), eta Espaina (Sta Anan).

Margarita uharteko interes-datuak

Klima: Idorra eta erdilehorra, urte osoan zehar klima-aldaketa gutxirekin. Ekainetik abuztura arte irlan euria egiten du, baina urrietik martxora arte mendietan bakarrik euria egiten du. Euria ekaitztsua da, baina arratzaldez laburra baino bizia da. Batez besteko tenperatura 27°C-koa da.

Maleta: Ehun naturalak, eltxoak uxatzeko produktuak, eguzkitarako betaurrekoak, kapela.

Moneta: Bolibarra, euro bat 3055 bolibarrak dira.

Zer jan?: Nahasketa eklektikoa, Hispaniako gastronomiaren eraginekin, honi gaineratu behar digu Karibeak ematen duena. Plater nagusiak otarraina eta itsasoko produktuak dira. Honekin jarraituz, **Venezuelako plater nagusien artean dauzkagu:** Arepak, edo Sankotxoak topotxoekin jakiak, eta gelba-enpanada. Fruituak ere oso garrantzitsuak dira, batez ere zukuak egiteko ordua (papaia). Postreetan, Piñonatea, Saboianoak, koko-gozokiak, jeleak, eta fruta tropikal-kontserbak nabarmentzen dira.



AURKIBIDEA

KARIBEKO UHARTEAK2

ANTILLA HANDIAK2-33

PUERTO RICO2

Elkartutako askatasuna4

Babestutako 20 erreserba5

Irla xarmangarriak6

KUBA8

Pinar del Río9

Barakoa eta Baradero10

Historia aztoratuta12

JAMAICA14

1942.urtean, Kristobal Kolonek aurkitu zuen15

Blue Mountains16

Iparraldeko kostaldea17

Dunn ibaiko ur-jauziak17

Mugimendu rastafaria eta rastak19

HAITI20

Ekonomia azpigartua20

Populazio gehiena beltza da21

Haitiren kultura22

Haitiaren historia23

BAHAMAK25

Arraza beltzaren nagusitasuna26

Turismoaren mendekoa27

Lehenengo lurra kolon lehorreratu baizen28

KAIMAN UHARTEAK30

Arraien bisitaldia31

ANTILLA TXIKIAK32-129

TRINIDAD IRLA34

Irlaren historia35

TOBAGO37

Klima ozeaniarra38

Turismo-betetzea urri39

Main Ridgeko euri-basoa40

BARBADOS42

Higidurak lur hauek zizeltzen ditu43

Irlaren eraketa44

GRANADAKO UHARTEA46

Jatorri bolkanikoa eta klima tropikala47

Granadaren Historia48

Gobernuaren sistema49

SAN BIZENTE ETA GRANADARRAK50

Uharten historia51

Demokrazia parlamentarioa54

SANTA LUZIA55

Euriteak maiatza eta abuztaren artean gertatzen dira56

Bere ekonomia turismoan eta industrian datza56

Afrikako eragina duen kultura57

Aurrekari historikoak58

DOMINIKA60

Biztanle-dentsitate txikia63

Karibeen erreserba64
MARTINIKA66
Populazio beltza eta mulatoa67
Beti Frantziaren menpean68
GUADALUPE70
Guadalupe Birginaren ohoretan72
Guadalupeko historia kronologikoa73
KULUR GARAIAREN UHARTEA77
MARIE GALANTE79
Irlaren historia81
DÉSIRADE UHARTEA82
MONTSERRATEKO UHARTEA84
Irla bolkanikoa eta mendikatsua85
Estatuburu sinbolikoa86
ANTIGUA87
Klima tropikala88
Karibeak irlan bizi ziren89
NIEVES UHARTEA91
SAN EUSTAKIO92
Irlaren historia93
SABA94
Sabako parpailak95
ST. MARTIN97
Hondartza eskusiboak98
BIRIBIL IRLA100
Kristobal kolonek bere bigarren bidaia aurkitu zuen100
ANGUILA UHARTEA102
Turismoaren menpe103
Irlaren historia103

BIRJINA UHARTEAK105
St. Tomas eta St. Croix107
Uharteko fauna108
ARUBA109
Oranjestad eta San Nicolas111
CURAÇAO112
Klima erdilehorra113
Hizkuntzak113
Uhartearen historia. Europako esploratzaileen etorria114
Holandako kolonoen etorrera114
Petrolioaren finketan datzan ekonomia116
BONAIRE117
Urpeko bizitzaren eztanda118
Irlaren historia118
HARKAITZETAKO ARTXIPIELAGOA120
Itsasoko baliabideak122
Basamortu bat itsasoan123
HEGAZTIEN ARTXIPIELAGOA125
ORTXILA UHARTEA125
DORTOKAREN UHARTEA125
MARGARITA UHARTEA126
La Asunción127
Hondarpeko historia129
Takariguako nekazaritza-herria129
Irlaren historia129
Margarita uharteko interes-datuak129



Fernando Pedro Pérez, 60ko hamarkadaren

hasieran Bilboko auzo batean jaioa -Zorrotzan-, txikitatik naturaren deia-darra sentitzen hasi zen.. Oso goiz bere zaletasun, grina bihurtuta, eta gero, bere bizitza ulertzeko modu bakarra, Zierbenako portu txikian hasi zen -Bilboko Abran-. Orduko Zorrotzako apaiza urpekari aurrendari gas-

teiztarraren eskutik -Fidel Korta- egin zuen, Fernandok.

Goizeko bederatzietan lehenengo meza ospatu ondoren, udako egun guztiak, eguzkiak bere izpiak ikusten uzten zituenean, Fidelek bere ardurapekoarekin -Fernando-, eta bere Seat 600 hartuz, itsasorantz abiatzen zen. Hantxe, Fernandok itsasoaren sekretuak aurkitzeari ekin zion: baxurako arrantzaleek zekartzaten arrainak ezagutuz eta portuko aldapa berberetan saretik arrainak nola kentzen zituzten ikusiz, krabarrokaren arantzen arriskuak jakitezari hasi zion, arraien mimetismoa, arrain launak, labridoen kolore ederrak, esaterako, dontzeila eta karraspio atlantiko-koa, itsas aingiraren jatuntasuna...

Geroago, urpean igeri egiten zuen -birikaz-, urpeko mundu liluragarria ezagutuz.

Hazten zen neurrian, itsasoaren grina gehitu zen, eta berarentzat, itsasoari eta munduko animaliei buruzko argitalpen guztiak oparirik onenak ziren.

Goiz, Fernando eta bere lagunak alde hezeetako igelak eta tritonak begiratzera zihozten baita sugandilak eta muskerrak harrapatzera ere. Bestetik, Kadagua ibaiak egiten zuen urmael batean -Zorrotzako bokaletik gertu- arranoei begiratzen zieten.

Pixkanaka-pixkanaka, izaki bizidunak gero eta interesgarriagoak iruditzen zitzaizkion

EHUren Informazio-Zientziaren ikasketak bukatu ondoren, Kasetaritzaren bi adarretan eta Publizitatean litzentziatu zen-, baita Zuzenbide-ikasketan ere -UNEDen bidez-

1.990. urtean, Fernandok, biologo-talde batekin, -Galtzorian dauden Espezieen Defentsarako Elkarte-, sortu zuen -ADEVE-.

Elkarte honen bidez, Fauna eta Flora-ikasketa asko egin ditu, gainera Zoologia eta Naturaren buruzko ehun liburu argitaratu ditu. Duela gutxi, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmen sinatu zuen eta Fernandok, argitalpen guztiak Internet-etik hedatzea ez ezik, naturaren kultura ezagutaraztea ere du helburua. Izan ere, Fernandok bizitza osoa natura-ikasteari ekin dio buru-belarri.





■ *Karibeko uharteak liburua Karibeko uharten maitatzailentzat egina dago. Hemen landaredi liluragarriak, eguzkiak eta turkesa-koloreko itsasoak benetako paradisuak bilakutzen dituzte.* ■



A.D.E.V.E.